

SAKANAKO ASTEKARIA • 2016ko abenduak 23, ostirala • 2. aroa • 579 zenbakia

**GUAIXE.eus**



# Keinu bat



# baino gehiago

**Hurrengo Guaixea**

**urtarrilaren 13an**

**Sakanaoptika**  
Optikak, kontaktuak, ortodontia

Travesia Intxostia 10 - 31800 Altsasu  
T: 948 563 124 - [www.optikasakana.com](http://www.optikasakana.com)

\* Kirituaketa promozioan besterik gabekoak.

**2x1**  
Doaneko entzumen azterketa

**AUDIFONOETAN**

**2017ko urtarrilak 31 arteko eskaintza.**

Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

**GAES**  
BANTZARLE OFIZIALA

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



**Jose Calvo eta Jesusa De la Fuente**  
60 urte pasa dira ezkondu zinetenetik!!  
ZORIONAK!! Mila muxu etzekoen partetik.



**Jesusa De la Fuente eta Jose Calvo**  
ZORIONAK!! Besarkada handi bana eta esker mila  
egunero ematen diguzuenagatik.



**Zorionak Lully**  
Urtiek aurria duezie beye ilusiyo eta inyerra  
bazikobau aurria tietu ta Hi,Boltio,Oihan ta beste  
geñako guziek ETXIA bidien jartzeko!



**Maren ZORIONAK**  
Lau, lau, lau,sardiña ba-  
kalao! Urte bat gehio  
bete duzu politte!! ZO-  
RIONAK Bihotz biho-  
tzezi!!



**Iker eta Irati Ondarra**  
ZORIONAK  
ZORIONAK POLITTEK!!  
Ostegun hontan...  
5 urte!!! MUXU HAUN-  
DI BAT ETA BESARKA-  
DAK DENON PARTEZ!



**Nora Amillano Hualde**  
ZORIONAK  
Noratxu ttikia itxaro-  
pen handiaaa!!! Eragio-  
zu bibolinari...

## Abenduak-ilbeltzak 23-12

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Moonshine wagon.** Abenduaren 23an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Barandi tabernan.

**Pancho Balbuena.** Abenduaren 30ean, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Barandi tabernan.



**III. Nafarroako trikitixa jaialdia.** Ilbeltzaren 7an, larunbatean, 17:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Astonautak.** Ilbeltzaren 8an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Ene Kantak.**

### Dantza

**Erloju majikoa.** Abenduaren 28an, asteazkenean, 18:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Dstvo taldea.**

### Txotxongiloak

**Txori urdinaren habia.** Abenduaren 29an, ostegunean, 17:30ean Etxarriko kultur etxean.

### Magia

**Pedro III. ilusionista.** Abenduaren 29an, ostegunean, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Ipuin kontalaria

**Marinela Afrikan.** Abenduaren 23an, ostiralean, 19:00etan lortia kultur gunean. **Maitane Perez.**

### Proiekzioak

**Tanzanian boluntario. Eskola bat eraikitzen.** Ilbeltzaren 2an, astelehenean, 19:30ean Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan. **Maddi Urrea.**

### Dokumentalak

**Córtate el pelo. 60ko hamarkadako rocka Nafarroan.** Ilbeltzaren 4an, asteazkenean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean.

### Zinema

**Los últimos de Filipinas.** Abenduaren 23an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 25ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Buscando a Dory.** Abenduaren 27an, asteartean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean.

**La llegada.** Abenduaren 29an, ostegunean, 19:00etan, abenduaren 30ean, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 1ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**¿Qué invadimos ahora?** Abenduaren 30ean, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Tximinoen erresuma.** Ilbeltzaren 3an, asteartean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean.

**Marko Antonio. Hong Kongeko bahiketa.** Ilbeltzaren 4an, asteazkenean, 17:00etan Etxarriko kultur etxean.

**School rock band.** Ilbeltzaren 4an, asteazkenean, 19:00etan Etxarriko kultur etxean.

**Villaviciosa de al lado.** Ilbeltzaren 5ean, ostegunean, 19:00etan; ilbeltzaren 6an, ostiralean, 20:00etan eta ilbeltzaren 8an 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

### Film laburrak

**Film laburren emanaldia.** Abenduaren 29an, ostegunean, 20:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan.

### Mendi irteerak

**Balankaleku.** Abenduaren 25ean, domekan, 10:00etan Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzatik.

**Lakuntzako harrira.** Abenduaren 31n, larunbatean, 8:00etan Lakuntzako plazatik. **Zabalararte.**

**Erga (finalista).** Abenduaren 31n, larunbatean, 9:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokotik. **Iratxo mendi taldea.**

**Aizkorri.** Abenduaren 31n, larunbatean, goizez Altsasutik.

**Beriain.** Ilbeltzaren 6an, ostiralean, 9:00etan Unanitik. **Sakanako Mendizaleak.**

**Bargagain.** Ilbeltzaren 8an, domekan, goizez Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzatik.

### Bizikleta irteerak

**Urbasara igoera. San Silbestrea.** Abenduaren 31n, larunbatean, 16:00etan Altsasuko SDA taberna ondotik.

**Urruntzura (55 km).** Ilbeltzaren 8an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**III. Arakilgo Argazki lehiaketa.** Abenduaren 30era arte, astegunetan, 10:00etatik 15:00etara Arakilgo udaletxean.

**Eguberritako postalak.** Ilbeltzaren 4ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

**I. hegaztien erakusketa eta trukea.** Ilbeltzaren 8an, domekan, 9:00etatik 14:00etara Olatzagutiko frontoian.

**Uharteko ondarea.** Ilbeltzaren 8ra arte Uharte Arakilgo Aralar Mendi elkartearen. **Uharteko ondare taldea.**

**Jaiotzak.** Ilbeltzaren 8ra arte, astelehenean larunbatera, 18:00etatik 20:00etara eta, domeketan eta jai-egunetan, 13:30etik 14:30era eta

17:30etik 20:30era Olatzagutiko belenzaleen egoitzan. **Sakanako belenzaleen elkarte.**

**Argazkilaritza ikastaroko lanak.** Ilbeltzaren 8ra arte, egunero, 17:00etatik 21:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Egunerokoaz.** Ilbeltzaren 10etik 30era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Mertxe Sueskun.**

### Tailerrak

**Album ilustratua sortzea.** Abenduaren 23an, ostiralean, 17:00etatik 19:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Aurretik izena emanda.**

**Zientzia.** Abenduaren 30ean, ostiralean, 18:30ean Ihabarren. **Haur eta helduendako.**

**Orrialde markatzaileak.** Abenduaren 31n, larunbatean, 11:30ean Ihabarko liburategian.

**Pizza.** Ilbeltzaren 7an, larunbatean, 19:30ean Ihabarren. **Ondoren afaria.**

### Bestelakoak

**Olentzero marrazki lehiaketako sari banaketa.** Abenduaren 23an, ostiralean, 19:00etan Ziordiko liburategian.

**Hatortxu Rock jaialdiaz informazio batzarra.** Abenduaren 23an, ostiralean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean.

**Hator, hator etxera. Ozen abes dezagun.** Abenduaren 24an, larunbatean, 17:00etan Foru plazatik. **Errepresioaren aurka eta elkartasunaren aldeko herri-asanblada.**

**Batzarra.** Abenduaren 27an, asteartean, 18:00etan gure Etxea eraikinean. **Errepresioaren aurka eta elkartasunaren aldeko herri-asanblada.**

**Jolas parkea.** Abenduaren 29an, ostegunean, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Irurtzungo frontoian.

**Puzgarriak.** Abenduaren 30ean, ostiralean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara Altsasuko kultur

gune parean edo Burunda frontoian. **ADE.**

**Mus txapelketa.** Abenduaren 30ean, ostiralean, 16:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan.



**Urte-akaberako gala.** Abenduaren 30ean, ostiralean, 17:00etatik 2:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Kriseiluven gaua.** Abenduaren 30ean, ostiralean, 19:00etan Lakuntzako parkean. **Gure Esku Dago.**

**Eguberritako jolas parkea.** Ilbeltzaren 2an, astelehenean, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era Etxarriko frontoian.

**Jolas parkea.** Ilbeltzaren 4an, asteazkenean, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara Olatzagutiko kiroldegian.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Abenduaren 23an eta ilbeltzaren 6an, ostiralean, 20:00etan Arbuzuko eta Etxarriko plazetan, elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Abenduaren 25ean, ilbeltzaren 1ean eta 8an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Abenduaren 30ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Abenduaren 28an, asteazkenean, 20:00etan Etxarriko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Preso, iheslari eta deportatu guztiak etxera!** Abenduaren 30ean, ostiralean, 19:30ean Etxarriko plazatik manifestazioa.

## SAKANA

## Basotik jaitsiko da Olentzero



**Bihar ongi etorri beroa egingen zaio ikazkinari Sakanan.**

Galtzak bete lan izanen ditu Olentzerok bihar. Maridomingi lagun duela Sakanara bisita egingen du, basoko txondorak itzali eta ikatza egin ondoren. Ikazkinari behar bezalako harrerak prestatzen ari dira ibarraren luzean, eta merezitako ongi etorria egingen zaio bihar. Esaterako, bakai-kuar txikienak euren txokoak apaintzeko auzolana egingen dute gaur, 17:00etatik aurrera, elkarrean.

Baina, hura etorri aurretik, txikienak kalera eskatzera aterako dira bihar goizean; Uharte Ara-

kilen eta Etxarri Aranatzaren pazkuan amores eskean eta Altsasun eta Ziordian eta beste hainbatetan kantu-eskean ariko dira.

Olentzero etorri aurretik, Lamiatutur Olatzagutian izan zen igandean, olaztiar txikiek ikazkinarendako zituzten gutunak jaso zituen. Arbizuko haurrak basora joan ziren gutunak ematera. Olentzeroren postotzian gutunak utzi eta ikazkina eta Mari Domingi urrutitik ikusi zituzten Inigo Arizta ikastolako ikasleek.

Bihar, Olentzero eta Maridomingi agurtu ondoren, makina bat herritan auzatea edo otamena izanen da. Horrela, Gabonetako

ospakizunak primeran hasiko dira.

### Etxeberrin eta Zuhatzun ego-na da ikazkina

Olentzerok lan handia duela jakina da. Horregatik, lanak aurreratzeko, aurreko asteburuan jaitsiz Etxeberrira. Giro bikainean, primerako harrera egin zioten ikazkinari. Zuhatzuko bidea, aldiz, atzo, ostegunarekin hartu zuen ikazkinak. Zuhatzuarrek txokolate beroa hartu ondoren mendirantz jozuten, hari harrera egiteko. Ondoren, kanta eta dantzen tartea izan zen, eta haurrek opariak jaso zituzten ikazkinaren eskuetatik.

Hitzorduak	Herria	Ordua	tokia
	<b>Irurtzun</b>	18:30	Plazaolako zubia
	<b>Etxarren</b>	18:30	Eliza
	<b>Satrustegi-Hiriberri</b>	17:30	Satrustegiko elkartean txokolatada
		18:30	Olentzero Satrustegin
		19:30	Olentzero Hiriberrira eta merienda
	<b>Ihabar</b>	18:30	Autobia azpiko zubia
	<b>Irañeta</b>	18:00	Autobus geltokia
	<b>Uhart Arakil</b>	18:00	Itxesin, Beriaingo bidea hasiera
	<b>Arruazu</b>	19:30	Ubeldeko zubia
	<b>Lakuntza</b>	18:00	Trenbide azpiko zubia
	<b>Arbizu</b>	18:00	bildu, trikitixarekin baso aldera abiatzeko, bertan Olentzerori harrera egiteko
	<b>Unanu</b>	18:00	San Donato bidetik
	<b>Dorrao</b>	18:00	San Pedroitik
	<b>Lizarraga</b>	18:00	Menditik
	<b>Etxarri Aranatz</b>	17:00	Aldapasoro auzoa
	<b>Bakaiku</b>	18:00	Zulanpetik
	<b>Iturmendi</b>	19:00	Atxumendi Kalea
	<b>Urdiain</b>	18:00	Portuko kalean
	<b>Altsasu</b>	11:30	Mari Domingi gaztetxetik abiatuko da, Foru plazara, gaiteroekin. Ondoren, Zumalakarregira joango dira, gaitero, fanfarre, txistulari eta eskolaniakoekin. Olentzero eta Mari Domingi San Juan baselizara iritsiko dira. Zubiaren beste aldean harrera egingo zaie. Ibilbideari ekingo diote. Zumalaka rregin, miura banaketa, txondorra eta askaria egingen da eta gero Foru plazara (txalaparta, dantzariak, abesbatza...)
		17:45	
		18:00	
	<b>Olatzagutia</b>	18:30	Belen iturritik
	<b>Ziordia</b>	Zehaztu gabe	Altzaniako bidea



## Errege kabalkadak ilbeltzaren 5ean



Meltxor, Gaspar eta Baltasar ekialdeko erregeak bidean dira. Ilbeltzaren 5ean, ostegunean, Sakanara iritsiko dira. Errege segizioari dagokion harrera egiteko kabalkadak prestatzen ari dira ibarrean.

Karga-karga egina iritsiko da segizioa Sakanara. Izan ere, erregeen morroiek txikien gutunak jasoak izanen dituzte ordurako: Olatzagutian ilbeltzaren 1ean, igandean, 18:00etan, kultur etxean,

Altsasun ilbeltzaren 3an, 19:00etan, Burunda pilotalekuan eta Lakuntzan, oraindik zehaztu ez den egunean. Bidez okertu ez daitezen eta bidea egoki adierazteko ostegun horretan makina bat txikik

faleak edo farak edo zarata ateratzeko edozer gauzarekin zarata ateratzen ariko dira. Hemen gaude adierazteko haien modua da. Eta hurrengo egunean errege eguna dela. 11:30etik aurrera hala ibiliko dira Irañetan eta Lizarragan eta arratsalde, berriz, Etxarri Aranatz, Iturmendi eta Altsasun. Azken horretan opi-

len banaketaren bidez faradunen erregea aukeratuko dute. Opilean sorpresa opatzen duen Eneritz Regilen lekukoa hartuko du. Bera buru dela, herrian barna haur segizio zaratatsuak erregeen etorrera iragarriko du. Altsasuko ohitura hori 1974ean berreskuratu zuten Enrike Zelaiak eta Luis Mari Lopez de Goikoetxeak.

Hitzorduak	Herria	Ordua	tokia
	<b>Irurtzun</b>	18:30	Eliza
	<b>Uhart Arakil</b>	18:30	Manuel Goikoetxeren zurgindegitik, Zerradoa
	<b>Lakuntza</b>	18:00	Ibai aldetik
	<b>Arbizu</b>	18:00	Udaletxea
	<b>Ergoiena</b>	18:00	Lizarragako elkartetik. Lizarragan buelta egin ondoren, Dorraora -harrera elkartean- eta Unanura -harrera plazan- joango dira, bukaeran Lizarragako elkartean afaltzeko
	<b>Etxarri Aranatz</b>	19:00	Eliza
	<b>Bakaiku</b>	18:00	Behoko basotik
	<b>Iturmendi</b>	15:00	Fara-joleak plazan
		19:00	Pilaraldetik
	<b>Altsasu</b>	17:30	Farejoleen errege zozketa plazan
		19:00	Kabalkada, Lanbide Heziketako Sakana Institututik
	<b>Olatzagutia</b>	18:30	Autobus geltokitik
	<b>Ziordia</b>	Zehaztu gabe	Texeria Kalea



# Josi eta josi

Zoila Berastegi Mariñelarena

astekoa

80 urte badira, baina minek beti aurkitzen dituzte poroak arnasten jarraitzeko. Gorpuetatik gorputzetara pasatzeko abilezia ezaguna daukate, eta ez dira denboraren beldur. Bada, hala ere, denborak dena sendatzen duela uste duenik. Nik gero eta argiago daukat denbora poligrafo bakarria bada ere, ez dela zauriak isteko orratz aski fina. Beharrezkoa bai,

baina ez nahikoa.

80 urte badira familiko lurrak utzi eta arma bat esku artean lehen aldiz hartu zuen emakume haren zat. 80 urte badira zeruak azoka, kale, etxe, beso, hanka, aurpegi eta zakilak zartarazi zituela. 80 urte badira edozein lekutako edozein zuloan edozeinek lurperatu zuen edozein horrentzat. 80 urte badira "edozein" horien izen eta abi-

zenak esan nahi eta ahots kordak ahulegiak dituenarentzat. 80 urte badira "zulo" hitza herri honetan ezagun egin zela.

80 urte badira esku artean genuen bonba erraldoi hura zartatu zene-tiketa ordutik, burni puskak dar-matzagu, norberak jakingo du non. Bai, intimitateak badu metal hotzaren berri. Memoria kolekti-boa, inkonsziente kolektiboa,

borroka kolektiboa hitz konposatu ezagunak dira gurean. Baina ba alda "intimitate kolektiborik"? Paradoxikoa dirudien arren, gure barneko kortinak zabalduz gero, baten eta bestearen burni puskin mina eragin digun bonba erraldoi hori osatu ahal izango genuke agian. Jatorria irudikatzen duen puzzle bat lez.

Horregatik diot denbora ez dela

nahikoa. Erauzketa bat behar da; kanporatze bat; zabaltze bat; partekatze bat... Urte berriak aukera berriak dakartzanez, ireki daitezela zuloak, atera daitezela burniak, armak eta hezurak, atera dadila dena eta senda daitezela gurekin aspaldi irekiak izan ziren zauriak, etorriko direnak gure orbain berberak izan ez ditzaten. Horra nire urte amaierako desioa.

## barrutik kanpora

### Zergatik ote?

Granadan preso diren euskal preso politiko senideen Mirentxin furgonetak sabotajea jasan zuen asteburuan senideak bisitan zirela. Bisitatik ateratzerakoan espetxeko esparru barruan zegoen furgonetako gupilak zulatuta topatu zituzten. Esparru

hau Guardia Zibilaren zaintzapean egoten dela azpimarratu beharra dago. Furgonetan bidaiatu zuten senideek ez dute baztertzeko gertatutako arengatik salaketa jartzea.

Bestalde, Huelvara zihon furgonetak Guardia Zibilaren kon-

trol zorrotza pairatu zuen. Ibilgailua Guardia Zibilaren patruila bat zegoen gasolindegian batean geratu zen, eta, ondoren, senideek bideari berriz ekin ziotenean, patruila bera errepidean gurutzatu zitzaie, eta gelditzera behartu zuten. Hainbat minutuz, bertan bidaiatzen zuten 5 senideek eta bi gidariek ibilgailuaren barnean geratu behar izan dute. Ondoren, beste patruila bat iritsi eta katxeo zorrotz bat egin zien, bai pertsonen zein bakoitzak zera-

matzan gauzei. Ordu eta erdi iraun zuen kontrolak.

Senideen artean ezinegona eta beldurra sortzea beste helbururik ez duten gertaera hauek salatu nahi ditu Etxeratak, azken asteetan areagotzen ari direnak. Bidaia inposatuak zailteaz gain, errepideko arriskuak areagotzen ditu honek, urduritasun eta tentsio baldintzetan egitera behartzen dutelako.

Astebururo, euskal preso politiko senide eta lagunak Espai-

nia eta Frantziako estatuen geografia osoan barrena ibiltzera behartuta daude, eta, trafiko istripuen arriskuaz gainera, bestelako "istripu" horiek topatzeko arriskua izaten dute. Ez dago galdetu beharrik nork eragiten dituen istripu batzuk zein besteak. Zigorgabetasun osoz jokatzeko dute, eta gertaera hauek ez dira Auzitegi Nazionalera iristen. Zergatik ote?

**Sakanako ETXERAT**

## hara zer dien

### Mugak: nongoak, norenak eta norentzat?

**Zein muga mota? Zeri/nori jartzen dizkiogu mugak? Zeri jarri behar ote genioke muga?**

Azken hilabeteetako kontua da GIZAKI etorkinei "ustezko balio demokratikoko" Europa honetan sartzea galazten dieten hainbat eta hainbat harresi eraikitzea. Mota guztietakoak. Munduan barrena: India-Pakistan; Ceuta-Melilla;

Mexiko-AEB; Europan zehar...

Galdera da: Norentzat da era eraginkorra harresiak eraikitzea Estatu Espainiarreko Frontex erakunde bezalako negozio bila dabilzan erakundeetaz gain? Norbaitek sinisten al du gerratetik ihesean migratzen duen GIZAKIAREN-TZAT badagoenik hori baino harresi itzelagorik? Atzera egitera era-

mangoduen harresirik? Norena da, beraz, harresia? Migratzaileena ala "ustezko harreragizartean" bizi garenontzat?

Gezurrezko justifikazioetan oinarrituta: ziurtasuneza, masifikazioa, "abalantxa", terrorismoa... hainbat eta hainbat gezur edo interesaturiko harresi mentaletan oinarrituta, gizarte zibilak sinistu egi-

ten du neurri handi batean migratzaileen "mehatxu" ustela eta interesatua.

Denok dakigunean hori GEZURRA dela. Galdetu al diogu gure buruari...

Ondorengoak GU bagara? Nor dago salbu gerrate batetik, erlijio zein irizpide politikotik jarraitua izatetik? Migratzaile ekonomiko izatetik? Ez al gauda ba oso hurbil, berriro ere, migratzaile gizartea izatetik? Orduan, atzera botako al gaitu inolako harresirik?

Gosetea, gerratetik ihes egitea, bizi salbu izatea MUNDUKO

GIZAKI ororen eskubidea bada, munduan barrena mugitzea bezala, ez da izango ez inoiz ez inon, bizi-tza salbatzeko saiakera geldiarazikoduen harresirik! Hortaz... norentzat da muga?

Zein muga mota jartzen arigara? Fisikoa, soilik? Ba ote dugu muga mentalarik guzti honekiko? 2016 honetan 4.700 pertsona baino gehiago hil da Mediterraneoan.

Ez al genioke "genozidio" honi muga jarri behar? Eta zer moduz gure barne mugak hausteari ekiten badiogu? Agian orduan....

**Sakanako Inmigratio Zebitzua**

# Ostiralero SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

## Gaurko gaiak:

- Uharteko ondare taldearen egutegiaz
- Olaztiko Gure Esku Dagoren aurkezpena
- III. Nafarroako Trikitixa Jaialdia

107.3 FM  
www.guaixe.eus-en ON LINE

**Guaixe**

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

**ZUZENTZAILEA:** Miren Alonso Razkin  
**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK**

Mank

s a k a n a

Nafarroako Gobierno de Navarra

**HURRENGO SOLSTIZIORA ARTE:** Larunbatean, ilun-  
tzearekin, neguko solstizioa ospatu zen Altsasun. Egu-  
bera taldearen ikuskizuna berriari toki egiteko zaha-  
rra erre eta farekin izpiritu txarrak uxatu zituzten.

# sakanerria >>

## SAKANA

### Ibarrak toki inbertsio planetik 1.865.932 euro jasoko ditu

**Sakanako Mankomunitateak,  
Irañetako Udalak eta zuntz optikoa  
jarriko duen enpresak jasoko dute**

Sakanako Mankomunitateak joan den urtean 2016ko aurrekontua egiterakoan aurreikusita zituen hainbat inbertsioetarako diru-sailik ez zuen jarri. Lan horiek egiteko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza behar du eta 2015ean diru hori jasoko zen zehaztu gabe zegoenez, ez zen aurrekontuetan

jaso. Horregatik, ibarreko erakundeak lastailaren 26an egindako bilkuran hainbat aurrekontu moldaketa egin zituen. Haietako bi diru handikoak. Ordurako Mank-ek bazekien inbertsio horiendako foru administrazioaren laguntza izanen zuela.

Izan ere, Nafarroako Gobernuak hilaren 13an onartu duen 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen legeak Sakanan



inbertsioak aurreikusten ditu. Legean jasotakoaren arabera, ibarrrera bideratutakoaren %79,5 Sakanako Mankomunitatearen lau proiektuendako izanen da, Hondakin Bilketa Zerbitzuko eta Ur Zerbitzuko bina proiektuendako.

Erakundea	Lana	Diru-laguntza	Noiz
Mank	Iribas-Irurtzun hoditeria	488.000	2017
Mank	Urdalur sarea Ihabar-Irurtzun	400.000	2019
Mank	Kopostatze planta, 2. fasea	538.450	2017
Mank	Garbiguneak	56.082	2017
Irañetako Udala	Ur biltegia	188.000	2019
Enpresa bat	Ekai-Uharte zuntz optikoa	203.400	2019
		<b>Guztira: 1.865.932</b>	

## >> Arakil / Irurtzun

### Mank-ek Arakil aldean ur hornidura bermatzeko lanak egingen ditu



Irurtzongo etxeetako ur hornidura bermatuko du Mank-ek.

**1.010.000 euro inbertituko ditu  
Mank-ek, gobernuak 888.000  
euroekin lagunduko dituenak**

Irurtzunek eta Arakilgo herriek Iribasko iturburuko ura edaten dute. Ur ekarria egiten duen hoditeria hainbat tokitan ez dago bere egonarenean. Matxurek ur ihesak eragiten dituzte eta zerbitzua kaltetu. Horretaz aparte, hoditeriaren zati bat Irurtzongo Plazaolako tuneletik pasatzen da. Lur-jauziengatik tunela itxita dago. Tunela berritzeak dirutza eskatzen du. Baina tunelean dagoen ur ekarriko zati horretan matxuraren bat gertatuz gero,

zaila edo ezinezkoa izanen litzateke konponketa. Horregatik, urekarriko hoditeria berria tuneletik kanpo eramateko asmoa dago.

Horregatik guztiagatik, Mank-ek Iribas eta Irurtzun arteko hoditeriaren hiruzati konpontzeko eskaera aurkeztu zuen. Lanek 610.000 euro inguruko aurrekontua izanen dute eta Nafarroako Gobernuak 488.000 euroekin lagunduko ditu. 2017an egingen dira lanak, eguraldiak aginduko du noiz.

#### Urdalurdik

Ziordiko lurretan dagoen Urda-

lur urtegia Sakana guztia urez hornitzeko jaso zen. Gaur egun bere sarea, alde batetik, Ziordira eta bestetik Ihabarrera arte iristen da. Arakilgo eta Irurtzongo ur hornidura bermatzeko Mank-en aspaldiko asmoa da Urdalurko ur sarea haraino luzatzea. Horretarako, diru-laguntza eskaera egin zuen Mank-ek, baita gobernuak onartu ere. Miloi erdiko aurrekontua du Ihabar-Irurtzun arteko hoditeria zatirako laguntza eta foru administrazioak 400.000 euro jarriko ditu. Lan horiek 2019an egingen dira.

## SAKANA

### Mank-ek hondakindegia %60 itxiko du

**Egun erabiltzen den zatia itxi eta berri bat egokituko du 2018rako. Gaur egun bezala, industriako hondakinak jasoko ditu**

Asmoa 2010eko da. Europak hala eskatuta hondakindegia guztiak itxi behar dira. Sakanako Mankomunitateak gaur egun erabiltzen den Arbizuko hondakindegia zatia zigilatu nahi zuen. Eta, aldi berean, hondakindegia barruko beste toki batean hondakinak jasotzeko beste espazio bat presatu nahi zuen. Finantza krisiak Nafarroako Gobernuak dirurik gabe utzi zuen eta gaur arte erabiltzen segitu da hondakindegia eremu hori. Mank Nafarroako Hondakin Partzuergoan sartu zenetik hondakindegian soilik industria hondakin bizigabe ez arriskutsuak botatzen dira.

Nafarroako Gobernu berriak hondakindegia itxteko lanari heldu dio eta Arbizuko ere tartean dago. Mank-ek 1,7 milioi euroko aurrekontua duen proiektua aurkeztu du eta gobernuak 1,3 milioi-ko diru-laguntza eman dio. Hona-



Kamioiak hondakindegian lanean.

koak dira zehazki egitekoak: egungo hondakindegia itxi, hondakindegia gela berria presatu, libiatuak jasotzeko gunea iragazgaitz bihurtzea eta likido horiek Arbizu-Lakuntzako araztegiari-

no eramane. Lanak 2017ko akaberarako eginak egon behar dute. Haiek egiteko eguraldi ona ezinbestekoa da eta, horregatik, apirilean edo maiatzean hasia aurreikusten da.

## SAKANA

### Kudeatzaile berria du Mank-ek

Azaroaren 21az geroztik Itziar Iribarren Rekarte da Sakanako Mankomunitateko kudeatzaile berria. Dagokion lan-deialdia gainditu ondoren eskuratu du lanpostua. Joan den urtean idazkari-kontu-hartzaile postua Cristina Ziaurrizek bete zuen. Ibarreko erakundean ilbeltzerako aurreikusten da Ur Zerbitzuko teknikari berria lanean hasia. Egun



hauetan probak egiten ari dira. Heldu den urtean Hondakin Zerbitzuko teknikari postua betetzea aurreikusten dute Mank-en.



**- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -  
- AUTOMOZIOA -**

**Lakuntza**

**Etxera eramateko gasoleoa**

**Alberto Iriarte**

948 576 016 - 609 421 680

**SAKANA****Eguberritako elizkizunak Aralarren**

**Pazko eguna eta Urteberri eguna igandearekin direnez, 12:30ean izango dira elizkizun horiek**

Gabon bezperan gaude. Ohiko ospakizunekin batera, eguberritako elizkizun bereziak izanen dira egunotan. Aurtengo Pazko eguna eta Urteberri eguna igandean direnez, igandearekin ospatuko dira elizkizunak. Aralarreko santutegian igandean Pazko eguneko meza elizkizuna 12:30ean hasikoda, eta Urteberriko elizkizuna, berriz, hurrengo igandean, ilbeltzaren 1ean, 12:30ean.

**Ihabar****Patroiaren eguna bertan da**

Olentzeroren bisita eta eguberritako egunaren ondoren, astelehenean, ihabardarrek Doneztebe patrioaren eguna ospatuko dute, ibarreko azken festa. Eguerdian patrioaren omenezko meza izanen da. Ordu batean hurrendako bazkaria iragarri dute eta mahaitik jaso ondoren, 14:30etik 18:00etara, haiendako begiraleek gidatutako tailerrak izanen dira. Heduak bazkaltzera 14:30ean eseriko dira. Bazkal ondorengo kantatuz eta dantza eginez animatuko dute.



Herriko bajaran, atzera ere, mahaira eseriko dira ihabardarrak. ARTXIBOA

**Altsasu****Gaur arte autobus geltokia Aita Barandiaran ondoan**

Altsasuko Udala Zelai kalean zebra-bide goratuak konpontzen ari dira aste honetan. Horregatik, asteartetik gaur arte autobusak ezin izanen dute Zelai kalean barna ibili. Bestelako ibilgailuendako kaleak bideratu dira. Autobusak Zelai kalea erabili ezin dutenez, ezin dira autobus geltokira joan. Beraz, lanakegin bitartean, gaur arte, autobus guztiak Aita Barandiaran adinduen egoitzaren parean geldituko dira.

**Uharte Arakil****Gozozaleak asetzeko modukoa**

Beste behin ere tarta lehiaketa antolatu zuen Donibane jubilatuen elkarteak, 12. edizioa aurtengoa. Ostegun arratsaldeko hitzordura 13 tarta aurkeztu ziren, guztiak ere begiekin jateko modukoak. Baina aurkezpenaz aparte, zaporea eta bestelakoak kontuan izan zituzten epaileek. Haietako hiruk urteak daramatzate lehiaketako epaile

lanetan: Javier Barbarinek (Iruñeko gozogileen elkartearen presidentea), Eduardo Lopezek (itxita-ko Altsasuko gozogintza eskolako irakasle ohia) eta Esther Lancharesek (aipatu eskolako idazkari izandakoa). Hirukoteari jubilatuen elkartearen tabernako bezero bat batu zitzaion eta lauren artean puntuatu zituzten gozogintzako guti-



Epaileak ezkerretan, sarituak eskuinean. UTZITAKOIA

ziak.

Epaileek Maribi Lizarragari eman zioten lehen saria eta etxe-

ra mahai-tresneria sorta eraman zuen. Bigarren izan zen Luzia Lacallek baxera eraman zuen etxe-

ra eta hirugarren gelditu zen Domi Berasategirendako maleta bat izan zen. Sari guztiak lehiaketako babesle Rural Kutxak eman zituen. Sari banaketaren ondoren tarta guztiak zatitu eta elkartearen kideek dastatzeko aukera izan zuten.

**200 bazkide**

Uharte aparteko Hiriberri, Irañeta eta Arruazuko bazkideak diru Donibane jubilatuen elkarteak. Urtean barna hainbat bidaiak antolatzen ditu. Baita hainbat jarduerak ere: astero ibilaldia, memoria tailerrak eta beste.

**Olatzagutia / Altsasu / Irurtzun****Sakandarrena Euskal Herriko txistorra txapelketaren podiuma**

Donostiako Santo Tomas ospakizunaren barruan Euskal Herriko txistorra txapelketa jokatu zen. 21. edizioan 22 ekoizle aurkeztu ziren eta epaileek podiuma Sakanako ekoizleekin betetzea erabaki zuten. 1. saria Olatzagutiko Paco harategiko Patxi Aldasororendako. 2. saria Oiarbide Harakinek irabazi zuten, Zegaman harategia duen Patxi Arangiz altsasuarrak hain zuzen ere. 3. saria, berriz, Irurtzongo Urrutia harategiko Iñigo Urrutiak eskuratu zuen. Olatzagutiko Paco harategiak bere txistorrekin hainbat sari irabazi ditu: Euskal Herrikoa 2001ean eta 2006an, eta beste bitan bigarren saria; Nafarroakoa 2001ean eta 2009an eta bitan bigarren saria eta Sakanakoa 2003an. Orain arte sariak Paco Aldasorok eta Mentxu Guajardok jasotzen zituzten, baina oraingoan txapela berezia izan da, haien seme Patxi egindako txistorra batek eskuratu baitu.

**Hirugarren belaunaldia**

Patxi Aldasoro Guajardok urteak darama harakin lanetan. Haren aurretik Eugenio eta Catalina aitona-amonak eta



Paco eta Patxi Aldasoro Donostian irabazitako txapelarekin. NEREA MAZKIARAN

gurasoak izan dira. Azken horiek jubilatuen eta aurtengoa bera da harategiaren arduradun. Lana aurrera ateratzeko hiru laguntzaile ditu. Patxi esan digunez, "ahalik eta hobekien egin behar da, kalitatearekin". Produktu ona egiteko inguruko txerriak, piperrautsa, gatz, baratxuriak eta arkume tripak erabiltzen ditu. Guztia esku onarekin landuta. Astero 80 bat

kilo txistorra egiten ditu. Gehienak harategiaren saltzen ditu, baina jatetxeren bati eta kanpoan ere saltzen ditu. Patxi esan digunez, "sariak irabaztea, hori zorzea da. Oso pozik gaude, gure lanaren aitortza bat delako". Dagoeneko hainbat hedabideren deiak jaso ditu. Jendeak jakin eta euren harategiarendako publikitate dela aitortu du.

**SAKANA****Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, hiru ikastaro Sakanara**

**Gaztelania, matematika eta komertzio eta marketing ikastaroak eskainiko dira, 2017an. Izena ematea zabalik dago**

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatzen ditu enplegu formazioari begira, langabezian dauden pertsonendako bereziki. Sakanan bi ikastaro eskainiko dira, "Competencias Clave" azterketa delakorako azterketak prestatzeari begira: gaztelania N2 ikastaroa (otsailaren 14tik ekainaren 8ra, astearte eta ostegunetan, 12:10etik 14:10era, Altsasun) eta matematika N2 ikastaroa (otsailaren 13tik ekainaren 9ra, 11:00etik 13:00etara, astelehen eta ostiraletan, Altsasun).

Eta, bestetik, komertzio eta marketing ikastaro bat eskainiko da, 390 ordukoa, oraindik zehaztu gabeko ordutegian. Ikastaroaren izena ondokoa da: Nazioarteko komertzioaren kudeaketa administratiboa eta finantzieroa: nazioarteko finantzaketa, nazioarteko ordainketa erak eta ingeles profesionala. Ikastaroa Fundacion Nueva Gestioneke emango du, Arbizuko Utzuhanen.

**Etxarri Aranatz****Jaki biltzaile ikastolan**

Andra Mari ikastolako ikasleek atzo ohiko motxilez aparte bestelakoak eramanen zituzten klasera: lekaleak, arroza, olioak, kontserbak, esnea eta bestelakoak. Hirugarren urtea da Andra Mari ikastolako ikasleek Nafarroako Elikagai Bankuari ekarpena egiten diotena. Urtero 800 bat kilo jaki biltzen dituzte. Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bankuaren eta ikastolaren arteko bitartekari lana egiten du eta azken horren ekimena txalotu du.

**SAKANA****Martiarenaren gazta onena Lizarran**

Abenduaren 4an, Lizarrako San Andres ferien barruan, XIII. Urbasa-Andia Gazta Txapelketa izan zen. 15 gaztagile aurkeztu ziren eta epaimahaiak erabaki zuen Uharte Arakilgo Jabiartxo Martiarenaren "Uharte" gazta zela onena. Uharte-arrak pozik azaldu zen irabazi izanagatik eta duela urte batzutatik gazta ekologikoa ekoizten duela aipatu zuen. Martiarenaz aparte, Ibarborda (Unanu), Balda Artola (Unanu), Felix Resano (Dorreo) eta Sarabe (Urdiain) gaztagariek parte hartu zuten.

## SAKANA

## Ibarreko konpost planta 2017an hasiko da lanean

**Sakanako materia organikoa hartuko du soilik. Ondorioz, ibarreko materia organikoa Caparrosora eramateari utziko zaio**

2017-2027ko Nafarroako Hondakin Plan berriak hondakinen % 65 gaika biltzearen aldeko apustua egiten du. Europatik zehazten den legediari segituz, foru administrazioak hilaren 14an onartutako planaren arabera materia organikoaren, ontzien, beiraren, papera eta kartoiaren eta bestelako hondakinen gaikako biltzeta asko handitu beharko da. Hondakinak jasotzearekin batera haiek kudeatu beharra dago.

Eta materia organikoaren kasuan Sakanako Mankomunitateak konpostaren aldeko apustua egin du. Arbizuko hondakindegian konpost planta bat eraikiko du heldu den urteko udaberri akaberarako. Eraikinetan 75 metro luze eta 25 metro zabal izanen ditu eta baskularen hegoaldera eraikiko da. Lanek



Konpostagailu motak Arbizuko hondakindegian.

637.497,91 euroko aurrekontua izanen dute. Nafarroako Hondakin Partzuergoak pagatuko du lana, baina Nafarroako Gobernuaren 538.450 euroko diru-laguntza izanen du horretarako. Han barruan

aurten erostekoak diren iraultzeko eta bahetzeko makinak egonen dira. Azken horiek erosteko 141.000 euro inguru bideratu dira.

Mank-eko idazkari Alberto Urkiak azaldu digunez, “gaur

## 3.000 Tona

Konpost plantak kopuru hori tratatzeko gaitasuna izanen du. Gaur egun 1.000 tona inguru tratatzen dituzte Arbizuko hondakindegian. Irurtzunen ezarriko den sistemaren eta Altsasuko 5. edukiontziko materiarekin tratatutako tona kopurua handitu egingen da. Soilik Sakanako materia organikoarekin lan egingen dute. Gaur egun Sakanako materia organikoa Caparrosora tratatzera eramaten da. Garraio hori kenduta hondakinen kudeaketa zerbitzuko gastuak txikitu egingen dira.

## Hobariak

2017eko martxotik aurrera materia organikoa autokonpost, auzokonpost edo 5. edukiontzia bidez kudeatzen duten sakandarrek fakturan hobariak izanen dituzte. Hala erabaki du Nafarroako Hondakin Partzuergoak.

## Konposta eskura

Mank-ek Arbizun duen hondakindegian dagoen konposta edozein sakandarrek hartu eta eraman dezake. Astegunetan 7:00etatik 14:00etara joatea besterik ez du.

egun konposta egiteko lehengaiak badugu, baina eskulanetik asko du. Inbertsioak dena mekanizatzera ekarriko du”. Eta horrek,

ondorioz, konposta egiteko baimena integratua. Urkiak argitu digunez, egun dauden langileekin arituko dira.

## Arakil / Uharte Arakil



Zuntz optiko kable metroak eta metroak jartzen ari dira egunotan.

## Zuntz optikoko sarea 2019rako

Nafarroako Gobernuak onartu duen 2017-2019 tuki inbertsioen planean belaunaldi berriko banda zabalerrako sarbide sareak hedatzeko azpiegituren inbertsio programa dago. Gaur egun ibarreko hainbat herritan zuntz optiko sarea jartzeko lanean ari dira langileak. Baina sare hori ibarrean epeka zabalduko da eta Ekai eta Uharte Arakil artean 2019rako izanen da. Nafarroako Gobernuak 203.400 euroko diru-laguntza aurreikusi du.

## Irañeta

## Ur biltegia 2019an konponduko da

**Nafarroako Gobernuak tuki inbertsioen planean sartu du lana**

Aspaldi daki Nafarroako Gobernuak Irañetako ur biltegia berrietzeko premia duela. Txikia eta zaharra da eta berritu beharra dago. Baina dirurik ez poltsan. Eta lan handiegia da Irañetak bere kontura egiteko. Finantza krisiaren ondorioz foru administrazioak bestelako lehentasunak

ezarri zituzten eta Irañetan ur hornidura sarean egin beharreko lana urtetik urtera atzeratu da.

Azkenik, hilaren 13an onartu zen tuki inbertsioen legean ur biltegia berritzeko lanak ageri dira. Lanek 225.000 euro inguruko aurrekontua dute eta Nafarroako Gobernuak 180.000 euro emanen ditu. Lanak 2019an egingen dira.

## Altsasu

## Ataboko kontuak hobera

Altsasuko kirol azpiegituren kudeaketaz arduratzen den Atabo SL enpresaren ekonomia egoeraz zera adierazi du Javier Olo Martinez alkateak: “konplexua da, baina haren eta udalaren arteko koordinazio ezin hobearrekin hobetzeko aukera argiekin”. Alkateak gaztigatu duenez Geroa Baik bi erakundeen arteko koordinazioa hobetzen lan eginduko legegintzaldiaren aurreneko zatian eta Ataboren “kontuen hobekuntza nabarmena ari da izaten”. Horren adibide gisa igerileku estaliko eguzki plaken konponketa jarri du, gas kontsumoan %37ko murrizketa ekarri duena.

Horrekin batera Altsasuko Udalak enpresa publikoaren estatutuak aldatu ditu. Hemendik aurrera Atabo SRL izanen da, hau da, irabazimorik gabeko erantzukizun mugatuko sozietatea. Ollok azaldu duenez, “zerga-ondorio garrantzitsuak ditu honek. Izan ere, bere kirol azpiegiturak erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek ez dute BEZA jasan beharko. Baina



Aquagim saioa bat Zelandiko kiroldegian. ARTXIBOA

enpresak bere jardura aurrera ateratzeko egiten dituen ordainketa guztietan BEZA pagatuko du. Zerga hori arautzen duen legedian aurrekusten diren salbuespenak baterabilikoda”. Neurri horiekin batera, hornidura kontratuen berrikuspena egin dute.

Horiek guztiak eginda, alkateak jakinarazi du Atabo enpresa publikoak 2017an irabaziekin bukatuko dutela aurreikusi dute. Sortu zenetik aurreneko aldia litzateke. 63.333,13 euroko irabaziaz espero dituzte heldu den urterako. Hala balitz diru hori aurreko urteetan sortutako zorra ordaintzera bideratuko litzateke. Azkenik, eta enpresa horrekin

lotuta, Ollok jakinarazi du Burunda frontoiaren tabernaren kudeaketa eta pilotalekuaren mantenua eta garbiketara emateko baldintzen plegua aurki publikatuko dutela.

## Harreman eraginkorrak

Nafarroako Smart Cities Plan Zuzendaria kontratatu eta jarraipena egiteko Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuarekin lankidetzara hitzarmena sinatuko du. Horren helburua herritarren eta administrazioaren arteko harremanen eraginkortasuna hobetzea da. Bestalde, Nafarroako Kontu Ganberak Altsasuko Udalaren kontuen auditoria egingen du 2017an.

## Garbigunea Pilotajaukun 2017rako



2017an garbigune mugikorraz aparte, finkoa izanen da Altsasun.

Altsasuko Udalak Pilotajaukun duen biltegiaren ondoan gaur egun industria-educiontzia handiak uzten dira eta altsasuarrek han denetarik botatzen dute. Bereizi gabe. Hiri hondakinen tratamendu egokia egiteko Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak han garbigune bat egitea erabaki dute. Egungoa arautzeko espazio bat itxiko dute eta porlanezko zorua emanen diote. Han barruan hainbat edukiontzia izanen dira, hondakinak gaika egoki birziklatzeko.

Lanak heldu den urtean egingen dira eta bukatu aurretik garbigunearen kudeaketa nola egin erabaki beharko dute Mank-eketa udalak.

Bestalde, hondakinen kudeaketarako Mank-ek Ziordian transferentzia planta bat egitea aurreikusi du. Altsasuko eta Ziordiko lanak 70.000 euro inguruko aurrekontua izanen dute. Nafarroako Hondakin Partzuergoak pagatuko du eta horretarako gobernuaren 56.082 euroko diru-laguntza izanen du.

**SAKANA**

## Kalera, Kalera! Tourrak Sakana zeharkatuko du bihar

**Presoak kaleratzeko eskatuz zutabe bana abiatuko da Irurtzundik, 10:30ean, eta Ziorditik, 10:45ean. Etxarri Aranatz 13:00etan elkartuko dira eta ekitaldia izanen da**

Kalera, Kalera! Tourrean oinez, laisterka, patinekin edo bizikletan parte hartzeko aukera izanen da. Herriz herri txandakaturaz edota gehituz, ibarraren ekialde eta mendebaldetik abiatutako adarrak Etxarri Aranatz batu arte. Behin Etxarrin kantu eta kandlekin ekitaldia egingen da.

Kalera, Kalera dinamika preso politiko izandako talde batek sustatu du eta Euskal Herrian barrena hainbat ekimen egiten ari dira. Guztiek Euskal Preso Politikoaren Kolektiboari (EPPK) babesa azaldu, "herri borroka sustatu eta preso guztien kaleratzea zein iheslari guztien itzuleraren beharra exijitu" nahi dute. Dinamikaren sustatzaileek diotenez, "iragana den gatazka armatuaren ondorioak erabakitzeke inolako mugiri-



Ekimenaren aurkezpena. @NAIZ

mendurik gabeko bost urte" izan dira azkenekoak.

Eta tarte horretan presoek gaiak "atzera egin" duela nabarmendu dute. "Gaur egun espetxe-etako egoera aurreko urteetako baino larriagoa da". Presoek ezartzen zaien legeria "salbuespenean, neurrigabeberian eta mendekuan dago oina-

rrituta". Euren beste ekimenen osagarri ikusten dute eta "helburua lehenbailehen denak ateratzea" dela adierazi dute. "Kalera, Kalera! Espetxeak husteko exijentzia da, baita bakea eta askatasuna irabazteko ere". Aldi berean, "euskal gizarteari presoek aldeko kalera ateradadin" eskatu dute.

**>> Etxarri Aranatz**

## Preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea eskatuko dute

**Abenduaren 30ean, ostiralean, 19:30ean manifestazioa egingen da**

Etxarriar talde bat preso eta iheslariaren alde elkarlanean aritzeko elkartu da. Gai horren "konponbiderako pentsaera eta ikuspegi ez erabat berdinak dauzkagunok elkarrekin bildu eta zenbait ekitaldi prestatzen hasi gara". Denon artean preso eta iheslariak herri-ratzea lortuko dutela uste dute. Eta elkarlan horren fruitu dira kartzelako isolamenduari buruz atzo izandako hitzaldia eta urteko azken aurreko egunerako deitu duten manifestazioa, preso, iheslari eta deportatu guztiak etxera! leloa izanen duena.

Mobilizazio horren alde ahalik eta pertsona, antolakunde eta elkarte gehien atxikimendua lortu asmoz harreman eta komunikazio kanpaina abiatu dute taldeko kideek. Deitzaileek azaldu-



Hainbat etxarriarrek aurkeztu zuten manifestazioa.

ko dute azken lau hamarkadetan "herri honek bere burua askatu nahi izateagatik" hildakoak, kartzelaldi eta ihesaldi luzeak izan dituela. Presoek bizitako "egoera

okerrak" ere gogora ekarri dituzte: sakabanaketa, isolamendua, osasun arretarik eza... Guztiagatik, etxarriar eta sakandar guztiei parte hartzeko deia egin diete.

**SAKANA**

## Natur parkea Pirinioetako eremu babestuen sarean

Urbasa-Andia natur-parkea, Nafarroako beste lau natur gunekin batera, Green proiektuaren barnean daude. Haren helburua Pirinioetako babestutako naturaguneen sare bat sortzea da, haien artean arteko lotura egonkorak sortuz eta "sareko kudeaketa" egiteko. Horrela, zenbait alderdi hobetu ahal dira, antzeko kontserbazio-arazoak azter-

tzeko partekatutako diagnostikoak egiteko. 2 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua du proiektuak, haren % 65 Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatuta. Proiektuaren barruan mendilerroa hartzen duten estatu-etako babes-eremuen kudeatzaileen artean ezagutza eta jardunbide egokiak trukatzeko ekintzak sartzen dira. Hurrengo 3 urteetan eremuen kudeaketako efizientzia hobetu nahi da ingurumeneko balio batzuekin eta antzeko arazo batekin.

## Extremara PPko kongresuan konpromisarioa

Alderdi Popularrak XVIII. Nazio Kongresua otsailaren 10etik 12ra egingen du. Nafarroako popularrek bozketan bidez nazio batzarrerako 16 konpromisario aukeratu dituzte. Eta horien artean dago Juan Antonio Extremara PPko Nafarroako Iparraldeko batzordeko buru eta Etxarri Aranatz zinegotzia dena.

**Altsasuko ferietako liskarraren ondoren**

## Erantzun "irmo eta sendoa" berriz ere



**Giza-sarearen bitartez, "gure jarrera kaleratu eta ozen eta garbi esan nahi dugu burugabekeri, astakeri juridiko-mediatiko eta poliziala eteteko"**

Ehunka altsasuar eta sakandar ateraziren kalera atzo. Guztiek ere auzipetutako 11 gazteekin egindako "injustizia" salatzea zuten helburu. Ibarreko, Euskal Herriko eta atzerriko hainbat kontzentrazioen ondoren, 20:00etan, giza-sare jendetsua eratu zen Altsasun barrena. Auzipetuen etxeetara giza kate banak frontoian ateratako argazkiaren kopia bana eta Altsasuko herriak sinatutako bertso bat eraman zuten.

Horrela adierazi zieten elkartasuna. "Gaur elkarri eskuak eman diogu eta metroak okupatu ditugu kalean, herritarrak herria okupatzen, bere jabe egi-

ten, horrela behar baitu beti ere". Horrela adierazi nahi izan zuten: "ez zaudete bakarrik, hemen gaituzue". Halaxe adierazi zuten herri asanbladako eledunak. Lekukoa eman eta gero kalejiran kultur gune parera bueltatu ziren guztiak.

Asanbladakoek aitortu zuten "sentimendu gazi-goza" zituztela, zazpietatik lau aske eta hiru preso gelditu zirelako. Borrokatzearen "balio handia" aldarrikatu zuten, "gaur eta hemen, garaipe-nak lortzerik badagoela ikusi da. Bai, ez da erabateko errealitate gozoa". Gaineratu zuenez, "gu borrokan jarri baituen arrazoi bakarra injustizia da, berdin da 11 izan edo bat izan". Gaineratu zuten, "muntaiarekin" bukatu arte ez dira geldituko.

**Materiala**

Altsasuko argazkilariek egindako argazkiekin egutegia ateratu da. Gainera, San Silbestre egunerako kamixetak kalean izanen direla aurreikusitako da.

**600 argazki baino gehiago**

Altsasu, Sakana eta munduko makina bat tokitatik bidali dituzte jendeak argazkiak. Guztietan #AltsasuArrakAske kartela eskutan dutela ageri da

**Hurrengo ekitaldiak >**

**Abenduaren 27an, asteartean, 18:00etan** gure Etxea eraikinean batzarra, ekintzen egitaraua zehazteko.

**Abenduaren 28an, asteazkenean,** Adurren urtebetetzean, hainbat ekitaldi.

**Abenduaren 30ean, ostiralean,** Euskal selekzioaren partidaren material salmenta postua jarriko dute.

**Abenduaren 31n, larunbatean,** San Silbestre lasterketan material salmenta postua jarriko dute. Ilbeltzaren 21ean, larunbatean, elkarrekin herri bazkariak.



## Altsasuko ferietako liskarraren ondorengoa

## Lau etxean

Aratz Urrizola, Iñaki Abad, Julen Goikoetxea eta Jon Ander Cob etxean daude, gainerakoek espetxean segitzen dute

Ferietako liskarragatik auzipetutako 11 altsasuarrek asteartean Carmen Lamela epailearen aurrean deklaratu zuten, bideo konfrentziaz, Iruñetik eta espetxeetatik. Epaile berak erabaki zuen Aratz Urrizola, Iñaki Abad, Julen Goikoetxea eta Jon Ander Cob fidantzarik gabe aske uztea. Astean bitan epaitegira joan beharko dute, ezin izanen dute estatutik atera eta pasaporte eman dute. Lamela argudiatu duenez, etxebizitza finkoa dute eta ziurtatu daiteke epaitegian aurkeztuko direla. Instrukzioaldia aurki bukatu dela eta prozesatuta egotean ez dutela delitua errepikatzeko, ihes egiteko eta probak suntsitzeko arriskurik ikusten gaineratu du epaileak.

Preso segitzen dute Adur Ramirez de Aldak, Oihan Arnanzek eta Jokin Unamunok. Haietaz Lamela epaileak dio: "aske geldituz gero ezin da ziurtatu biktimen ondasun juridikoen kontra atentatu edo bestelako delituak eginen ez dutenik". Horretarako, hirurek liskarrean parte hartze aktiboa izan zutela deskribatzen du epaileak ebazpenean.

## Argudioak

Salaketa administratiboak eta Herrira mugimendua legeko zenean presoen eskubideen aldeko jar-

dueretan parte hartu izana argudiotzat hartzen du epaileak. Haietako batek erasoagatik dituen aurrekariak aipatu eta Ospa mugimenduko kide direla dioen Guardia Civilaren txostena du oinarri epaileak. Osparekin lotutako jardunak aipatzen dira, legezkoak guztiak ere. Haietako bat Indar Gorriren kontrako sarekada batean atxilotua izan zela ere gaineratu du. Txosten horietan jarduerak politikako zerrendatzen ditu eta epaileak ez dio errepertatu ez jarduerok legezkoak ziren, ez eta eurretako batek bertan ez zuela parte hartu.

Hiruen polizia aurrekariak aipamena egin eta gero epaileak dio: "zerrendatutako gertakariengatik auzipetuei leporatzen zaizkien gertakari isolatuak ez direla ondoriozta daiteke, baizik eta ohiko jarduna, antolatua eta beste pertsona batzuekin adostua, Guardia Civilaren kolektiboaren kontra egiteko". Aurrekariak zerrendan, gutxienez, akats nabarmen bat dago, hiruetako bat, 16urte zituenean, 2011n zinegotzi izan zela aipatzen baitu epaileak.

## Ebazteko

Instrukzio epaileak zazpien espetxeratze aginduaren kontra helegitea jarri zuen defentsak. Haietako lau aske gelditu ziren asteartean, baina helegitea Espainiako Auzitegi Nazionalako zigor-arloko salako 4. sekzioak ebatzi behar zuen. Angela Murillo, Carmen

## Lau etxaju



Horiek bota zituzten asteazkenean, 2:30 aldera. Ferietako liskarragatik auzipetutakoei harrera egiteko hainbat altsasuar zain egon dira bart. Haiak iritsi direnean udaletxetik Foru plazara eramaten duen kalean txaloka hartu dituzte hainbat altsasuarrek. Soto del Real eta Alcalá Meco 21:00ak aldera utzi zituzten. Bueltarako bidean afaltzera gelditu eta, horregatik, berandutu zen harrera.

Paloma Gonzalez eta Teresa Palacios epaileak atzo erabaki zuten Ramirez de Aldak, Arnanzek eta Unamunok preso segitu behar dutela. Bi moduluz aldatu dituzte.

Astelehenean aztertu zen defentsaren helegitea eta altsasuarrek preso segitzeko eskatu zuten fiskaltzak eta Estatuko Abokatuak. Jose Perals fiskalak gogora ekarri zuen gazte altsasuarrei terrorismo, gorroto eta atentatu delituak egotzen zaizkiela. Hamabost urtetik gorako zigorrak ezar daitzekenez eta auzipetuak gazteak direnez, fiskalak argudiatu du ez

daudela "hain errotuta" eta ihes egiteko arriskua handiagoa dela. Frogak suntsitu edota delitua errepikatzeko aukera zegoela ere argudiatu zuen. Ez zuen kontuan hartu auzipetuak euren kabuz epaitegira aurkeztu zirela, haietako bat sarekada izan eta gero.

Defentsako abokatuak horretarako arrazoirik ez dagoela errepikatu zuten: Altsasun errotuta daude eta ikerketa bukatuta frogak deuseztatzeko arriskurik ez dago. Abokatuak ez zuten itxaropen handirik. Bitartean, oraindik Iruñeko epaitegiaren inhibizioaren inguru-

rako helegitea ebatzi gabe dago. Nafarroako 3. Instrukzio Epaitegia inhibititu eta Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utzi zuen auzia azaroaren 11n. Abokatu batek helegitea aurkeztu zuen eta halakorik ezin zela jarri erantzun zuen Iruñeko epaileak. Kontrakoa dio defentsak eta, horregatik, Nafarroako Auzitegi Nagusira jo du.

Auzipetutako beste bi gazte bi asteen behin epaitegitik pasatzen dira eta pasaportetik ez dute. Beste bien auziaren ardurara, berriz, adin txikikoen epaitegiaren esku dago.

## Kezkarekin Espainiako Kongresuraino

Ferietako liskarraren inguruko informazioa lehen eskutik eman zieten politikariei

Ferietako liskarragatik auzipetuen gurasoen eta herri-asanbladako ordezkariak Madrilen izan zen asteartean. Auziak sortzen dien kezka azaldu zieten Espainiako Kongresuko hainbat taldeetako ordezkariak. Bi bilera izan ziren; bat, En Marea, Compromis eta PDECateko ordezkariak eta, bes-

tea EAJko Aitor Esteban, EH Bilduko Marian Beitialarrangoitia eta Oskar Matute, Podemoseko Pablo Iglesias, Eduardo Santos, Ione Belarra eta Nagua Albarekin, ERCko Gabriel Rufianekin.

Auzipetu guztiak askatzeko eskatzeaz aparte, politikariek txosten bana jaso zuten. Hartan lastailaren 15etik gertatutako guttien kronologia, auzia "terrorismo delitu" gisa kalifikatzearen

kontrako argudio juridikoak eta bi hilabetetan jasotako babes mezuen bildumak daude. Azken horien artean Altsasuko Udaleko eta Nafarroako Parlamentuaren bozeramaile batzordeen adierazpenak daude. Herriaren izenari egindako kaltea arintzeko ere eskatu zuten. Altsasutik joandako politikariak haiekin bildu izana eskertu zuten.

Bestalde, Espainiako Kongre-



Altsasuarrek ERCko ordezkariak. @HITZONDO

suan bertan, Barne lantaldeak ferietako liskarraren inguruan lastailaren 18an onartutako era-

kunde-adierazpena bertan behera gelditu zen asteartean. +www.guaixe.eus

ARAIA · 945 314 572 · OLAZTI · 940 460 755  
ETXARRI ARANATZ · 940 461 660  
ALTSASU · LANTEGIA · 940 562 205  
ZUMALAKARREGI PLAZA · 940 460 026  
AMAIA SUPERMERCATUA · 940 562 195  
SAN JUAN KALEA · 940 564 053  
NETTO · 659 200 401

**Amaya**  
Okindegi-gozotegia

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

OKINDEGIA - GOZOTEGIA - KAFETEGIA - OGIA - PASTELAK - KAFEA - TXOKOLATEA - PASTAK - BONBOIAK

## SAKANA

## Lanbide Heziketako ikasleak erronka erreal baten aurrean

**Sakanako Mankomunitateak duen arazo batik konponbidea ematen saiatu dira 19 ikasle**

Hondakin organikoen kudeaketa auzo-konpostagailuen bidez egiten dute makina bat sakandarrak. Etxoetan sartzen dena konpost bihurtzen da. Sakanako Mankomunitatearen nahia litzateke sortutako konpost hori auzo-konpostagailuan bertan txikitzea eta, horrela, hura erabiltzen duten pertsoneri, bertatik bertara konpost ematea, beste inora eramana eta han txikitzen egon beharrean.

Mank-eko Hondakin Zerbitzuko hezitzaile Beñat Agirre Ben-

goetxeak arazo hori azaldu zien Sakanako Lanbide Heziketako 19 ikasleri, mekatronika goi zikloko 2. mailakoei eta soldadura eta mantenu ziklo ertainetako 2. mailakoei. The Case metodologia erabiliz, lau taldetan banatu eta Mank-ek proposatutako erronkari elkarlanean arituz konponbidea bilatzen saiatu ziren.

Ekimen horrekin ikastetxeak ikasleak lan merkatuko errealitate hurbildu eta,aldi berean, haien ekintzaile gaitasuna gartzea sustatu nahi zuen, "autonomo edo besteendako lan egiteko gaitasun garrantzitsua baita ekintzailtza. Gero eta enpresa gehia-



Ikasleek gogoz heldu zioten Mank-ek jarritako erronkari eta konponbideak proposatu zituzten. CEDERNA-GARALUR

gok hartzen dute gaitasun hori kontuan", azaldu digute ikastetxetik. Horregatik, planteatutako erronka horren bidez, ikasleek ekimena, erabakiak hartzea, aukeren bilaketa, plangintza, sormena eta helburuen betetzea moduko gaitasunak landu dituzte.

Goiz osoko lanaren ondoren taldeek euren proposamenak aurkeztu zituzten Agirreri. Hark esan zuenez, "gazte hauen ekimenean fidatzen haien onena emateko gai dira". Jaso zituenak konponbide praktikoak eta, kasuren batzuetan, baliabide gutxirekin

egingarriak zirela gaineratu zuen. Ekimen hori Cederna-Garalurren Ekintzailtza Babesteko Proiektuaren zati da. Egitasmo horrek Nafarroako Enplegu Zerbitzuen finantzazioa du eta Sakanako Lanbide Heziketa institutuaren lankidetzak.

## » Olatzagutia

## Lurraldetasunari buruzko galdeketa prestatzen hasita

Olatzagutiko Gure Esku Dagok ehun bat herritarren aurrean aurkeztu zuen bere burua, eta bere erronka, larunbat eguerdian. Urte eta erdi da sortu zela Olatzagutiko Gure Esku Dago taldea. Adin guztietako dozena bat olaztiar daude, bat ez beste guztiak emakumezkoak. Orain arte informazioa jasotzen ibili dira. Baina lurraldetasunari buruzko herri galdeketa egiteko urratsa eman dute. Horren berri eman zuten larunbatean eta olaztiarrei galdeketa aurrera ateratzeko laguntza eskatu zieten. Gurutzek esan zigunez, "erronka eta lan handia da eta guk bakarrik ezin dugu aurrera eramana".

Galdeketa egin aurretik "olaztiarren parte hartzea sustatuko duten hainbat motako ekintza egiteko asmoa dugu", esan digu Garazik. Eta horretarako behar dituzte laguntzaileak. Hastear diren sinadura bilketan laguntzea litzateke aurreneko lana. Garazik aitortu duenez, "zenbat eta gehiagok sinatu, ondoren botoa ematera gehiago joanen direla pentsatzen dugu". Galdeketa errolda 1.200 bat pertsonen osatuko dute. Gure Esku Dagoren protokoloaren arabera



Aurkezpenaren ondoren hainbat olaztiarrek talde argazkia egin zuten.

erroldaren %10eko sinadurak jaso behar dituzte, baina 300 edo 400 jaso nahi litzateke esan digu Garazik.

Galdeketa egin ondoren, herriari utzi nahi luketen ondorez galde-tuta, Gurutzek esan digu: "herriari ohitura bat hartzea, beste gaiak aurrera eramateko, denon artean. Edozer gauzarako gai garea. Garazik, bestetik, "herritarren aktibitatea pixka bat berpiztu; kolaborazioa, parte hartzea berriz ere

martxan jarri herri honetan. Ekintza herritarra da hau, erakundeek galdeketa ofiziala egin dezaten oinarria da hau".

### Udaberrian

Galdeketa egin den galdera olaztiarrek beraiek aukeratu behar dute. Galdeketa egin behar den Sakanako gainontzeko herrietan bezala olaztiarrek udaberria aipatzen dute hura egiteko. Gure Esku

Dagok Iruñean egindako agerraldian, larunbatean, 2017rako hiru galdeketa "olatu nagusi" izanen direla jakinarazi zuen: martxoaren 19an, maiatzaren 7an edo garagarriaren 18an. Azken bi datetako batean eginen dira Sakanan.

[ged.olazti@gmail.com](mailto:ged.olazti@gmail.com)

e-posta helbide horren bidez jarri daiteke Olatzagutiko Gure Esku Dago taldearekin harremanetan.

## SAKANA

## Urte zaharra eta asmo berriak

Urteari kirola eginez, afari ederrekin, kantuan esanen diogu agur. Etxajuak botaz, abesten, parrandan, mendira joanez... eginen diogu ongi etorria.

**Irañetan**, urte berriko aurreneko orduan Txapel Azpi elkartearen elkartuko dira, handik etxeko kantuak abiatzeko. **Arruazun** gaurdian iturriko ura jaso eta herriaren barne banatuko dute, urte berriari kantatuz. **Lizarragangoan** ere urtearen aurreneko unetik izanen dira kalean, etxeko ibiliko dira Ur goiena kantan eta eskean.

**Etzarri Aranatan** ordu batean plazan topa egitera elkartuko dira. Ur goiena kantuarekin kalez kale kantari ariko dira. **Iturmendin** gaurdian pasata kintuak etxeko errondan ariko dira, kantu eskean.

**Urdiainen** urte berriko aurreneko ezki hotsekin nesaki eta mutiki gazteak herriko iturrietara joanen dira pitxerretan ur berria hartzera. Ura edan eta urdiaindarrek Ur goiena, ur barrena kantaita abestuko dute. Opilak ere dastatzeko aukera izanen dute. Gabon zahar eguneko arratsaldean, **Altsasuko** Udalak gaztainak eta ardoa banatuko ditu Gure Etxea eraikinean. +www.guaixe.eus

## CITROËN C3 BERRIA AS UNIQUE AS YOU ARE

ConnectedCAM Citroën™  
Pertsonalizatorako 36 nahasketa  
Citroën Advanced Comfort®



CITROËN preferire TOTAL. KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO<sub>2</sub> ISURIA (G/KM): CITROËN C3: 3,2-4,7 / 83-109

citroen.es

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • [www.autsanmiguel.com](http://www.autsanmiguel.com)



ANIZTASUNA  
 BERDINTASUNA  
 ERRESPECTUA  
 DISKRIMINAZIO EZA

**Mank**  
 s a k a n a  
 immigrazio zerbitzua



**SAPREM**  
 S.A. DE PREFORMADOS METALICOS



**SAKANA**  
 SAKANA  
 Group



**sapa:**  
Soluciones innovadoras en aluminio



**IZTASUNA**  
**RDINTASUNA**  
**ERRESPETUA**  
**KRIMINAZIO EZA**

**Mank**  
 s a k a n a  
 immigrazio zerbitzua



**SAPREM**  
 S.A. DE PREFORMADOS METALICOS



**SAKANA**  
**SAKANA**  
 Group



**sapa:**  
Soluciones innovadoras en aluminio

## SAKANA

Herria / Urtea	2016			2015			16/15 aldea			2011	16/11 aldea	2006	16/06 aldea
	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Guztira		
Altsasu	7.471	3.773	3.698	7.490	3.785	3.705	-19	-12	-7	7.655	-184	7.501	-30
Arakil	952	490	462	955	494	461	-3	-4	1	956	-4	882	70
Arbizu	1.117	569	548	1.111	571	540	6	-2	8	1.082	35	1.006	111
Arruazu	106	57	49	108	56	52	-2	1	-3	112	-6	107	-1
Bakaiku	349	183	166	339	178	161	10	5	5	340	9	337	12
Ergoiena	399	216	183	397	215	182	2	1	1	422	-23	437	-38
Etxarri A.	2.456	1.277	1.179	2.466	1.280	1.186	-10	-3	-7	2.485	-29	2.434	22
Irañeta	176	97	79	172	96	76	4	1	3	160	16	157	19
Irurtzun	2.187	1.125	1.062	2.194	1.133	1.061	-7	-8	1	2.279	-92	2.192	-5
Iturmendi	398	206	192	388	200	188	10	6	4	403	-5	379	19
Lakuntza	1.263	658	605	1.257	651	606	6	7	-1	1.237	26	1.103	160
Olatzagutia	1.522	786	736	1.520	776	744	2	10	-8	1.696	-174	1.762	-240
Uhartea	834	438	396	840	443	397	-6	-5	-1	836	-2	775	59
Urdiain	671	356	315	681	354	327	-10	2	-12	714	-43	605	66
Ziordia	354	184	170	389	190	199	-35	-6	-29	399	-45	351	3
Sakana	20.255	10.415	9.840	20.307	10.422	9.885	-52	-7	-45	20.776	-521	20.028	227

Iturria: Instituto Nacional de Estadística

## Sakanak biztanleak galtzen segitzen du

**Hirugarren urtez segituan ibarreko populazioak behera egin du. 2016ko ilbeltzaren 1ean 2015eko egun berean baino 52 sakandar gutxiago zeuden, %0,26 gutxiago. Hiru urtetan 552 pertsona gutxiago daude ibarrean**

Sakanak hiru urte darama populazioa galtzen: 2014an 305 biztanle, 2015ean 197 eta 2016an 52. %2,66ko biztanleria jaitsiera hiru urtetan. Kopuruek nabarmen adierazten dutenez, jaitsiera erritmoa urte batetik bestera nabarmen jaitsi da. 2016ko aurreneko egunean Sakanan 20.255 pertsona bizi ginen. Haietatik 10.415 gizonen ziren, aurreko urteko egun berean baino 7 gutxiago, eta 9.840 emakumezkoak

ziren, 45 gutxiago. Ibarreko biztanleen %51,42 gizonen ziren eta %48,58 emakumezkoak. Ehuneko horietan apenas dago alderik urte batetik bestera, 0,1 puntu aurrenekoen alde. Udalerri guztietan emakumezkoak baino gizonen gehiago bizi dira.

### Herrika

Ibarreko zazpi herritan igoda populazioa eta gainontzeko zortzietan jaitsi. Biztanleria handitu den udalerriak honakoak dira: Irañeta (4 biztanle gehiago, %2,33 gehiago), Lakuntza (6, %0,48), Arbizu (6, %0,54), Ergoiena (2, %0,5), Bakaiku (10, %2,95), Iturmendi (10, %2,58)

eta Olatzagutia (2, %0,13). Gorako joera duten herrien artean soilik Irañetak eta Bakaikuk errepikatzen dute. Herritarrak galdu dituzten udalerriak gainontzekoak dira: Arakil (3 biztanle gutxiago, %0,31 gutxiago), Irurtzun (-7, %0,32), Uhartea Arakil (-6, %0,71), Arruazu (-2, %1,85), Etxarri Aranatz (10, %0,41), Urdiain (-10, %1,47), Altsasu (-19, %0,25) eta Ziordia (-35, %9). Ziordian jaitsiera handi hori komentuaeren hustearekin izan dezake zerikusia. Herritarrak galtzen dituzten herrien artean errepikatzen dute Irurtzunek, Arruazuk, Etxarri Aranatzek eta Altsasuk.

Joera luzeagoei erreparatuta,



aurtengo datuak 2011ko datuekin alderatuta, soilik lau herririk irabazi dute biztanleria: Irañetak, Lakuntza, Arbizu eta Bakaiku. Atzerago eginez gero eta 2016ko datuak 2006koekin konparatzen baditugu hamar herritan hazi da biztanleria: Arakil, Irañeta, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Ziordia. Sakanako populazio errekorra 2013an lortu genuen, 20.809

biztanlerekin.

### 171 nafar gehiago

Lau urteko beherako joera izan ondoren, aurtengo ilbeltzaren 1ean aurreko urteko egun berean baino pertsona gehiago bizi ziren Nafarroan: 171. Guztira 640.647. Haietatik emakumezkoak 322.807 ziren (%50,39), aurreko urtean baino 216 gehiago eta gizonen ziren 317.840 (%49,61), 2015ean baino 45 gutxiago.

### Lakuntza

## Memoria freskatzeko

**1936ko estatu kolpearen ondorioz fusilatutako Lazaro Alegria Lazkarai. Haren jaiotzaren urteurrenarekin batera memoria ekitaldia egin zen**

Lakuntzarrekerantzun ona eman zioten herriko historia-memoriarekin antolatuta zegoen hitzorduari. Harreraren ondoren aktore batek garai haietan bizi izan zituztenak antzeztu zituen, offeko ahots baten eta bigitarra-jolearen musikaren laguntzaz. Segituan, 1936ko estatu kolpeko Lakuntzan izan zituen ondorioak errepasatu zituzten. Kultur etxe-

an ikusgai zeuden margolanen egile Jose Ramon Urtasun Rekaldek bere lanen bidez garai hartako giroa nolakoa zen aipatu zuen, bere lanak sortzeko orduko bizi izandako jendearen lekukotzetan oinarritu baitzen. Larunbateko saioa omenaldi txiki batekin bukatu zen: errepresioa pairatu zuten lakuntzar guztien izenean 1936an fusilatutako Lazaro Etxeberria Lazkaraiaren familiari lore sorta eman zieten. Aurretik aureskua dantzatu zuen dantzari bikote batek.

### Estatu kolpeak ekarri zuena

Kolpetik hiru egunera udalbatza eta Gregorio Burillo basozaina kargugabetu zituzten. Lau hilabetera Felix Tirapu idazkaria, abertzalea eta batzokiaren sortzailea izateagatik. Carlos Rodriguez Perez irakaslea kargugabetu zuten. Gainontzekoetan bezala Lakuntzan ere Frente Popularreko eta EAJko kideen izeneko zerrenda beltzak sortu ziren.

Blas de Alegria apaiz eta idazleak errepresioaren beldur ezkutu behar izan zuen, eta haren fami-



Lakuntzako ekitaldiaren momentu bat.

liak hura babesteko material ugari suntsitu behar izan zuen. Mialeketa bat baino gehiago jasan behar izan zituzten hala ere. Lazaro Ale-

gria Lazkarai 1936ko garilaren 28an atxilotu eta Oskiak txipudi batean fusilatutako.

+www.guaixe.eus

www.pescaderiamariaeugenia.com

Arratsaldez zabalik

# Zorionak eta urte berri on

**mariaeugenia**  
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

# Arbizu

Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com

Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

# Kirola >>

TAEKWONDOA

**BARGAGAIN ELKARTASUN JAIALDIAN:** Larunbatean Nafarroako Taekwondo Federazioak Arrosadian antolatutako jaialdi soli-

darioan parte hartu zuen Altsasuko Bargagain Taekwondo taldeak. Jasotako Nafarroako Elikagai Bankura bideratu zuten.

Pilota

## Zabaletak etxean jokatu du

Atzo Ezkurdi eta Merino II.a Urrutikoetxearen eta Imazen kontra aritu ziren eta gaur Elezkano II.ak eta Zabaletak Mendizabal III.a eta Barriola izango dituzte aurkari Irurtzunen (22:00etan, ETB1)

Atzo hasi zen Binakako Txapelketako 4. jardunaldia. Aurreko asteburuan Bengoetxea VI.a eta Larunberi 18 eta 22 irabaztetik lehen puntua eskuratu zuten Joseba Ezkurdiak eta Merino II.ak puntu bakarra zuten Urrutikoetxea eta Imaz izan zituzten atzo aurkari Arrasaten. Guaixe isterakoan oraindik ez genuen emaitzaren berririk, baina bigarren puntua lortzeko bi bikoak gogor lehiatuko zirela argi esan daiteke. Ea puntua arbizuarraren alde erori zen.

### Gaur Binakakoa Irurtzuneran: Zabaleta etxean ariko da

Binakakoa Irurtzuneran iritsiko da gaur, ostiralean. Zabaleta Etxa-



Elezkano eta Zabaleta, Bilboko torneo irabazitakoan. NOTICIAS ALAVA

rrengoa da, baina ikasketa guztiak Irurtzunen egin ditu eta Irurtzunge pilota klubekoa izan da beti. Hortaz, gaur Zabaletak etxean jokatu duela esan genezake. Elezkano II. arekin bikotea osatuta, Mendizabal III.a eta Barriola izango dituzte aurkari. Bi bikoteek pun-

tu bakarra dute eta Irurtzunen jokoan dagoena urrezkoa izango da biendako. Jaialdia gaueko hamarretan hasiko da eta ETB1-ek eskainiko du zuzenean. Asteazkenean egin zuten material aukeraketa eta gaur puntako partida espero da Irurtzunen.

### Binakako Txapelketa. 4. jardunaldia

**Urrutikoetxea-Imaz / Ezkurdi-Merino II.a** (atzo, ostegunean. Ez dugu emaitzarik)

**Elezkano II.a-Zabaleta / Mendizabal III.a-Barriola** (gaur, ostiralean, 22:00etan, Irurtzunen. ETB1)

**Bengoetxea VI.a-Larunbe/Victor-Albisu** (larunbatean, 17:00etan, Tolosan)

**Iribarria-Rezusta / Olaizola II.a-Untoria** (igandean, 17:00etan, Eibarren)

### Martija, hasteko

Jaialdia zabaltzen duen partidaren Etxeberriko Martija pilotaria lanean ikusteko aukera izanen da. Gorkarekin bikotea osatuko du Martijak, Lasoren eta Ladis Galarzaren kontra aritzeko. Hortaz, pilotari arakildarren jaialdi petoa izango da gaurkoa.

## Murgiondo eta Azanza txapelkunordeak

Nafarroako Binakako lehen mailako finalean Uharteko Iruñeko Yoldik eta Peñasek 22 eta 6 irabazi zieten Irurtzun klubekoari

Igandean Nafarroako Binakako 36 metroko lehen mailako finala jokatu zen Labriten. Uharteko Iruñeko Eneko Yoldi eta Arkaitz Peñasen kontra aritu ziren Irurtzun klubeko Koldo Murgiondo eta Ivan Azanza. Finalean Alberto Ongay aritzeko zen, baina azkenean Koldo Murgiondo etxarri aritu zen bere partez. Ordu erdi eskas iraun zuen finalean, Uharteko bikotea izan zen nagusi. Nahiz eta hasieran Irurtzun klubekoak lehia bizia eskaini - 5 eta 3, 6 eta 4, 7 eta 5 eta 8 eta 6-, Uhartekoek hartu zuten agintea, eta 14 tanto jarraian egin eta gero, azkenean 22 eta 6 irabazi zieten Irurtzun klubeko Murgiondori eta Azanzari.

Pala

## Palista onenen txanda



Gaur puntako partidak espero dira txapelketaren finalerdietan, Altsasun.

**XI. Sakanako Gure Pilota Emakumeen Pala Torneo final aurrekoak gaur, ostiralean jokatu dira, 17:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan**

Abenduaren hasieran abiatu zen XI. Sakanako Gure Pilota Emakumeen Pala Torneo, Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Pilota Federazioaren eta Gure Pilota klubaren eta Arbizu eta Etxa-

rriri Aranazko Udalen laguntzarekin antolatutakoa. Helburua emakumezkoen pala txapelketa indartsua antolatzea da, goi mailakoa, eta aldi berean, palista txikiekin egiten den lana agerian jartzea.

Elite mailan 9 bikote lehiatu dira eta 2. mailan, aldiz, 7 bikote. Horretaz gain, kategoria txikien

### Sakanako Gure Pilota Emakumeen Pala Torneo finalerdia

Gaur, ostiralean, 17:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan

**2. maila:**

Irati Igoa-Izar Parot / Leire Ardanaz-Maider Gabirondo  
Garazi Martinez-Uxue Mendiñeta / Ixone Martin-Irati Lasa

**Elite maila**

Yanira Aristorena-Leire Etxaniz / Itsaso Pradera-Maddi Mendizabal  
Uxue Murillo-Ariane Arrieta / Susana Muneta-Garazi Eizmendi

mailako lehiaketa jokatzeko ari da. Lehiatzen ari diren palisten artean sakandarrak daude.

Gaur, ostiralean, abenduaren 23an, final aurrekoak jokatu dira, 17:00etatik aurrera, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Eta txapelketako final handiak abenduaren 30ean jokatu dira, 18:00etan, Etxarri Aranatzan.

## NKJ: Gure Pilotakoak bikain



Nafar Kirol Jolasetako finaleran maila bikaina eman dute gure palistek. FEDERAZIOA

**Lehen faseko finaleran Orella eta Imaz txapelkunordeak izan ziren eta Gomez eta Otxoa txapelkunordeak**

Larunbatean Nafar Kirol Jolasen Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketako lehen faseko finalak jokatu ziren. Etxarri Aranazko Gure Pilota taldeko palistek maila bikaina eman zuten.

Kimuen mailan Gure Pilotako Orellak eta Imazek 18 eta 5 irabazi zieten Mendillorriko Alonsori eta Arbizuri. Aldiz, kadeteen finalean Mendillorriko Espinallek eta Azanzak 25 eta 17 hartu zituzten menpean Gure Pilotako Gomez eta Otxoa.

**Itxesi jatetxea**

Menua 16 €  
Enpresa bazkari eta afariak

**Asteburutan zabalik**  
948 464 327

655 225 717  
Uharteko Arakil

**Zorionak eta urte berri on**

**Olga Martinez de Lagrán**  
kirol psikologoa

639 408 118

Min kronikoaren tratamendua:  
fibromialgia, artritisa, buruko minak, ansietatea, depresioa

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Asteleroetik ostiralera  
**Eguneko menua 9€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

Ogiaren artisauek

**PORTUKO**  
okindegia

**Erregetarako rosakoak aurretik eskatu**  
**Zorionak eta urte berri on**

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153



## Atletismoa



Lopez eta Audikana, saritutako bestekorrikalari sakandar batzuekin, Sakanako Herri Lasterketako podiumean.

## Ginesa Lopez eta Raul Audikana Sakanako Kopako txapeldunak

Sari ematea ilbeltzaren bukaeran izango da

Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Atletismo Kopako Lasa Kirolak Sariak badi-tu txapeldunak. Sakanako Atletismo Kopan bost probek puntuatzen zuten: XIII. Aitzkozar Herri Krosak (maiatzak 21), III. Ziordiko Herri Krosak (maiatzak 28), XIII. Ergoienako Birak (irailak 17), XVI. Sakanako Herri Lasterketak (urriak 22) eta XXXVI. Barrikarteren Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abenduak 8). Bada, proba horietan lehiatutako sakandarraren emaitzak kontuan hartuta erabaki da Sakanako Atletismo Kopa. Emakumezkoetan Ginesa Lopez Cid izan da txapelduna, Izaskun Beunza Azazetaren eta Maite Zabaleta Gomezen aurretik. Eta, gizonezkoetan, Raul Audikana Arrese olaztiarra izan da onena, Sergio Garcia de Eulate Maya eta Alberto Martinez Trinidad korrikalarien aurretik.

Bestalde, Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarriak ziren bost probetan parte hartu zuten artean –Ginesa Lopez, Maite Zabaleta, Raul Audikana, Santi Agirre eta Joxemari Mercero– sari bat zozketatuko du ilbeltzaren bukaeran burutuko den sari banaketan.

## Aizkora

## Sakanako Aizkora Txapelketa hartuko du Etxarri Aranatzek

Abenduaren 24an, larunbatean, 13:00etan, Etxarriko pilotalekuan

Etxarri Aranazko Udalak, Mankoren eta Sakanako Aizkora Eskolaren laguntzarekin Sakanako Aizkora Txapelketa antolatu du bihar-ko, larunbaterako. 13:00etan hasiko da txapelketa, Etxarri Aranazko Euskalerrari frontoian, eta Sakanako lau aizkolaria lehiatuko dira:

Juanjo Erdozia eta Goizeder Beltza etxarriarrak, Ivan Resano dorrobarra eta Iker Gorriti uhartearra.

Aizkolaria bakoitzak kana erdiko bat, 60 ontzakoa, 70 ontzakoa eta 80 ontzakoa erdibitu beharko ditu. Gabonetarako Etxarri Aranazko udalak antolatzen dituen ekimenen barruan dago txapelketa hau.

## Txirrindularitza

## Guerrero, Cycling Academy taldeko zuzendari

Oscar Guerrero Kaikuko entrenatzaile ohiak Euskaltel-Euskadi taldean zazpi hilabete inguru zeratzen zuzendaritza lanak egin, talde laranja 2013an desagertu zenean. Orditik txirrindularitza-kanpo zebilen altsasuarra, baina berriro ere txirrindulara bueltatu da, Israelgo Cycling Academy taldeko zuzendari berria baita. Nonbait, entrenatzaileak bilatzen ari zirela jakitun, bere curriculum-a bidali zuen Guerrerok, eta taldeak bere aldeko hautua egin du.

Guerrerok zuzentzen duen talde profesionala gaztea da. Altsasua-

rrak Marca egunkarian azaldu duenez, klasikoetan, ihesaldietan edo mendian ongi ibiltzen den jendea badu, baina helburua “talde bezala hazten joatea, eta egun bateko lasterketetan lan ona egitea” da. Plantilla gaztea izanda, etorkizunerako gauza handiak egiteko lana egitea, hori da asmoa. +www.guaixe.eus



## Gimnasia erritmikoa

## Gabonetako erakustaldia, bikaina



Iskiza taldeko gimnastek ikuskizun bikaina eskaini zuten igandean. ISKIZA

Iskiza Sakana Kirol Taldeko gimnastek ikasturtean barna ikasitakoaren primerako erakustaldia egin zuten, igandean, Burunda

pilotalekuan. Benjaminak, haurrak, gazteak... taldeka eta bakar-ka, koreografia ikusgarriak eskaini zituzten.



Juanjo Erdozia, aita alboan duela, Sakanako Herri Kirol Jardunaldian.

## Mendia

## Mendigoizaleen eguna, lainoiez gaindi



Altsasuko atxilotuak izan zituzten gogoan igandean Aralarren. UTZITAKOA

Mendizale ugari bildu zen Aralar gainean, 51. Mendigoizale Egunean

Gabonen aurreko igandean, ohi bezala, mendizaleek Aralarreko bidea hartu zuten. Lainoetan zegoen Sakana, baina bidean gora egin ahala, eguzki bikaina topatu zuten. Santutegian, 51. Mendigoizale Egune-ko ospakizunei ekin zieten.

Nahi zutenek hildako mendizaleen aldeko mezara jo zuten. Aurtent bi mendizale zendu direla aipatu zuen Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko presidentea Martin Montañesek, Axio Aranburu altsasuarra, Alpeetan, eta Alfonso Ripa iruindarra, Himalayan. Guztiak gogoratzeaz gain, mendiko materiala bedekatzeko eta Aralarreko San Migel ainguruari muxu emateko aukera pro-

bestu zuten mendizaleek. Ondoren, federazioak auzate ederra eskaini zuen Aralarreko ostatuan. Anaitasuna kluba izan zen antolatzailea, baina hurrengo urtean Bosco eta Irurtzango Iratxok ardur hartuko omen dute.

## 10.000 lizentzia

Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioan ia 10.000 pertsona dau- de federatuta, lizentziarekin. Soilik futbolak ditu lizentzia gehiago. “Aurtengoa izan da lizentzia gehien izan ditugun urtea; 500 lizentzia berri inguru tramitatu dira” azaldu zuen Martin Montañesek. Nolanahi ere, egunean zeuden mendizale gehienak 50 urtetik gorakoak ziren. “Jende gazte gehiago ikus- tea polita litzateke” gaineratu zuten.

Bazkide  
ZOZKETA

ERABILI TXARTELA  
gure saltokietan

ZOZKETA  
30€-ko 3 bale



## Kirolegia

## Desfibriladore eta lehen sorospen ikastaroak Olaztin

2017an izanen dira, oraindik zehaztu gabeko datetan. Izena ematea zabalik dago

Batetik, Sakanako Mankomunitateak, CEIM-en, Olaztiko Sutegi taldearen eta Olaztiko Udalarren laguntzarekin, desfibriladore ikastaroa antolatu du. Ikastaroa ilbeltzean eskainiko da, oraindik ziurtatu gabeko datan, 16:30etik 20:30era, Olaztiko kultur etxean. Gurasoei, kirol arduradunei, monitoei, langileei, irakasleei eta, finean, lehen sorospenetan interesa duen edonori zuzendua dago. Ikastaroan landuko diren artean daude birika-bihotzeko erreanimazioa, bizitza arriskuan jartzen duten egoeren aurrean -itotzeak, krisi epileptikoak, bihotzekoak...- nola jokatu, eta desfibriladorearen erabilera lantzeaz gain, makina bat eduki teoriko eta praktikoko landuko dituzte, gerta daitezkeen balizko larrialdi kasuetan nola jokatu eta zer egin aztertzeke.

Bestalde, Mank-ek, Olaztiko Sutegi taldearen, Olaztiko Udalarren eta DY Aren laguntzarekin lehen sorospenen ikastaroa antolatu du. 2017an izanen da, oraindik zehaztu gabeko datan. Guztira 4 orduko bi saio izanen dira, larunbat goizetan gauzatuko direnak, Olaztiko kultur etxean. Gurasoei, kirol arduradunei, monitoei eta lehen sorospenetan interesa duen edonori zuzendua egongo da.



Birika-bihotzeko erreanimazioa, bizitza arriskuan jartzen duten egoeren aurrean -itotzeak, krisi epileptikoak, bihotzekoak...- nola jokatu, eta desfibriladorearen erabilera lantzeaz gain, makina bat eduki teoriko eta praktikoko landuko dituzte, gerta daitezkeen balizko larrialdi kasuetan nola jokatu eta zer egin aztertzeke.

## Izena emateko

Bi ikastaroetarako, ilbeltzaren 20ra arte, Mankomunitatean (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus) edo Sutegiko Alberto Landa (628 776 848). Desfibriladore ikastaroaren prezioa 20 eurokoa da eta gehienez 24 partaideendako tokia egongo da. Beste ikastaroak ez du partaide mugarik. Partaideek ikastaroa egin izanaren ziurtagiria jasoko dute.

## Areto futbola

## Olaztin Gabonetako Areto Futbol Torneoa antolatu dute

abenduaren 30ean, 15:00etatik aurrera. Puntako 6 talde lehiatuko dira

Gabonetako oporretako kirol hutsunea betetzeko, I. Olaztiko Gabonetako Torneoa antolatu dute abenduaren 30ean, ostiralean, 15:00etatik aurrera Olaztiko Erburua kiroldegian.

## 6 talde

Guztira 6 taldek hartuko dute parte. A multzoan Olaztiko Sutegik, Araiako Alipendik eta Txantrea B-k. Eta B multzoan Txantrea A-k, Irurtzungo Xotak eta Pamploak. Multzo bakoitzean ligaxka jokatu eta gero, finalerdietan A multzoko onenak B multzoko bigarrenaren kontra jokatu du eta A multzoko bigarrenak B multzoko onenaren kontra. Txapeldunek final handia jokatu du.

## Irurtzungo txapelketan New Team txapelketa

Irurtzungo Guan taldeak Gabonetarako 12+12 orduko areto futbol txapelketa antolatzen du. Baina aurten Gabon gaua, Pazko eguna, Gabon zahar eguna eta Urteberri eguna asteburuan direnez, data-rik gabe egotean txapelketa ez antolatzea erabaki zuen taldeak. Horren partez, abenduaren 6an I. Emakumeen Areto Futbol Txapelketa antolatu zuten.



Areto futboleant, Olaztin.

Txapelketa oso arrakastatsua izan zela adierazi digu Guan taldeko Roberto Martil irurtzundarrak, aldi berean Magna Gurpeko jokalaria denak. "10 talde aritu ziren: Xota (Irurtzun), Taka Tiki (Irurtzun), Altsasu A, Altsasu B, Orbina (Ezkaba), Kutxufletas (Barañain), Mutilbera (Mutiloa), Aoiz, Dulantzi (Araba) eta New Team (Gasteiz). Finalerdietan New Team taldeak Kutxufletasi irabazi zion eta Dulantzik Xotari. Eta arabarren artean jokatu duen finalean New Teamek irabazi zuen torneo, Dulantzi menpean hartu eta gero. New Team taldekoak izan ziren torneoko atezain eta jokalaririk onenak" azaldu digu Martilek.

## Futbola

## Gaur hasiko da I. Gabonetako Futbol Torneoa, Altsasun



Altsasuko erregional mailako taldea. Julen Goikoetxea atezaina bueltan da.

## Kimuetatik hasita erregional mailaraino, gaur eta bihar jokatu da, Dantzalekun

Sociedad Deportiva Altsasuak (SDA) I. Gabonetako Futbol Torneoa antolatu du Altsasun. Horretarako Altsasuko Udalarren eta hainbat babesleren laguntza izan du. Bertan, kimuen mailakoak, haurren mailakoak, kadeteak, jubenilak eta erregional mailakoak ariko dira. Partidak Dantzaleku futbol zelaian jokatu dira. Kimuen mailan Futbol 8an ariko dira, hau da, 8 jokalariz osatutako taldeetan, eta hortik aurrera Futbol 11n.

## Gaur eta bihar

Gaur, abenduaren 23an, ostiralarekin, goizeko 10:00etatik aurrera jokatu da torneo. Kimuak hasiko dira lehian. 15 minutuko 2 zatitan jokatu dira partidak, eta 10:45ean finalak egongo dira jokan. Haurren mailan, 11:30ean abiatuko da lehia. 18 minutuko 2 zatitan jokatu dira partidak. Finala

## Futbola

## Jubenilak: Etxarri-Arrotxapearen partida bertan behera, liskarregatik

Altsasuko partida arbitratu zuen arbitroak salaketa jarri zion zale bati

Etxarri eta Altsasun jokatu duen gazteen 2. mailako partidek zeresana eman dute. Etxarri eta Arrotxapeak jokatu duen lehian, 70. minutuan eta Etxarri 4 eta 0 irabazten zenean, bitaldeen arteko jokalarien artean liskarra sortu zen. Zurrumbilo horretan Arrotxapeko jokalarien guraso batzuk zelaigunera sartu ziren. Azouzi arbitroak partida bertan behera uztea erabaki zuen. Altsasuko Foruzaingoen patrulla bat bertaratu zen futbol zelaira baina ordurako egoera bere onera bueltatu zen. Bestalde, Altsasuko eta Lagunak taldeen partidaren ondoren - 1 eta 3 irabazi zuten Barañaingoek-, eta Dantzalekun inor geratzen ez zenean, zale batek aparkalekuan itxaron zuelasaltu zuen Sabe arbitroak. Salaketa jarri zuen, zale horrek "iraindu, mehatxatu eta lepotik heldu" ziolako.

## Taldeak

**Kimuen maila:** Altsasu Tipi-Tapa, Altsasu-Kaixo, Sutegi eta Lagun Artea.

**Haurren maila:** Altsasu 2. haurren maila, Altsasu 1. haurren maila, Lagun Artea eta Etxarri Aranatz.

**Kadeteen maila:** Lagun Artea, Etxarri Aranatz eta Altsasu.

**Gazteen maila:** Altsasu eta Etxarri Aranatz.

**Erregionalen maila:** Etxarri Aranatz, Lagun Artea eta Altsasu.

la 13:45ean hasiko da. Kadeteen torneo, aldiz, 16:00etan abiatuko da -20 minutuko 2 zati jokatu dituzte-, eta gazte mailakoa, aldiz, 18:30ean. Eta bihar, abenduaren 24an, larunbatarekin, 10:45ean emango zaio hasiera erregional mailako torneoari. 25 minutuko 2 zati jokatu dituzte. Ondoren, torneoko sari ematea izango da, 13:30ean, Dantzalekun.

## Futbola

## Igoak eta Cerezok Asturiasekin berdindu eta Andaluziarekin galdu

VIII. Autonomien Arteko Espainiako Txapelketan bigarrenak sailkatu ziren

Asteburuan VIII. Autonomien Arteko Espainiako Txapelketa Nazionala jokatu da Ubedan (Jaen). Bertan lehiatu da Nafarroako 16 urtez azpiko emakumezkoen selekzioa. Selektzio horretarako Altsasu futbol taldeko bi futbolari hautatu zituzten, Irati Igoa Sesma etxarriarra eta Aroa Cerezo Cuesta lakuntzarra.

## NAFARROAREKIN HURENA, OTSAILEAN

Nafarroako selekzioak Asturiasen kontra bana berdindu zuen eta Andaluziako selekzioaren kontra, aldiz, 3 eta 1 galdu zuen. Irati Igoa aipatu duenez, euren multzoko bigarrenak sailkatu dira. Otsailean Euskadi, Galizia eta oraindik ez dakiten beste selekzio baten kontra ariko dira. Izan ere, partida batzuk bertan behera gelditu ziren Ubedan.

## Futbola

## FEDERATUTAKO TXAPELKETA

## PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

13. JARDUNALDIA

**URROZTARRA 1 - LAGUN ARTEA 0**  
**BURLADÉS - ETXARRI ARANATZ** (bertan behera, lainoarengatik)  
Urrotzen jokatu zuen Lagun Artea. Urrotzarra irabaztera atera zen hasieratik eta lakuntzarrei kostatu zitzaizkien partidaren sartzea. Lehia bikaina eskaini zuten bi taldeak. 57. minutuan Cirizak Urrotzarra aurreratu zuen; lakuntzarrek saiatu ziren, baina Del Arbol atezainak Olagueren bi gol aukera oso argi gelditzea lortu zuen. 3 puntuak Urrotzen geratu ziren. Bestalde, Burladesek eta Etxarri Aranatzek Burlatan jokatu beharreko partida bertan behera geratu zen, lainoarengatik.

Sailkapena >>

1. Bidezarra ..... 28 p  
3. Lagun Artea ..... 23 p  
13. Etxarri Aranatz ..... 14 p

Hurrengo jardunaldia, ilbeltzaren 8an

**LAGUN ARTEA - BURLADÉS**  
**ETXARRI ARANATZ - BERRIOZAR**

## ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

12. JARDUNALDIA

**ARDOI 5 - ALTSASU 0**  
Zizurren, Ardoik dominatu zuen hasieratik. Gol aukera sorta ederra sortu zuen Ardoik; bitartean, Altsasu defendatzeraz mugatu zen. Ardoik lehenengo gola sartu ondoren altsasuarrek saiatu ziren, baina 2. zatian iritsi zen Zizurkoen gol festa, 4 gol gehiago sartu baitzituzten. Horrela, punturik gabe itzuli ziren altsasuarrek.

Sailkapena >>

1. San Jorge ..... 27 p  
6. Altsasu ..... 14 p

Hurrengo jardunaldia, ilbeltzaren 8an

**ALTSASU - LAGUNAK**

## ELOMENDIKO TXAPELKETA

13. JARDUNALDIA

**ELOMENDI 1 - ZALDUA 1**

Sailkapena >>

1. Unziti ..... 31 p  
5. Zaldua ..... 24 p

## Areto futbola

## Bartzelona liderra hartuko du Magna Gurpeak

Abenduaren 30ean, 20:30ean, Anaitasunan

Asteazkenean Catgas taldeari 4 eta 2 irabazi zion Magna Gurpea Xotak, partida bikainean (Araça, Martil, Saldise eta Jesulito). Sailkapenean 6.a da talde berdea (21 puntu). Hurrengo ostiralean, abenduaren 30ean, Bartzelona liderra (28 puntu) hartuko du Anaitasuna pabilioian, 20:30ean.

## Areto futbola

## Sakanako Areto Futbol Topaketak

Sakanako Futbol Topaketen barruan, benjaminen mailako hurrengo jardunaldia, laugarrena, ilbeltzaren 8an jokatu da Etxarri Aranatz, 20:30ean.

## Sakanako Futbol Topaketak (Benjaminen 4. jardunaldia)

Ilbeltzaren 8an, Etxarri Aranatz.  
10:00etan: Etxarri - Sutegi  
10:50ean: Seguros Sayas - Urdiain  
11:40ean: Txartel - Mediolanum  
12:30ean: Lagun Artea 1 - Lagun Artea A

## Atletismoa

## Agur 2016! KORRIKAN

**38. San Silbestrea jokatu da Altsasun eta 15. Lasterketa Olatzagutian**

Urtearen azkeneko egunean zapa-tilak jantzi eta 2016. urtea korrikan despeditu dute sakandar askok. San Silbestre lasterketak korrikariendako akaso probarik herrikoienak eta gustukoena dira. Sakana bi proba jokatu dira: Altsasuko San Silbestreak 38. edizioa beteko du aurten, Nafarroako zaharrena. Olatziko San Silbestreak, aldiz, 15. edizioa izanen du.

**Altsasukoa, Nafarroako zaharrenean, Lopez de Uralde eta Azazeta gogoa**

Dantzaleku-Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta, aurten 38. edizioa beteko du Nafarroako proba beteranoena denak. Aipatu proba, Mario Memoriala izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen Mario Lopez de Uralde korrikalari altsasuarren omenez. Eta Lopez de Uralde z gain, aurten duela gutxi zendutako Goizeder Azazeta korrikalari eta triatleta ohia izango dute gogoa San Silbestrean.

**Haurrak 18:00etan eta helduak 19:00etan**

Abenduaren 31n, larunbatearekin, arratsaldeko 18:00etan emanen diote hasiera lasterketari, gaztetxo- en lasterketarekin. Aurrebenjaminak (400m), benjaminak (800m)

eta kimuak (1.200m) ariko dira, plazatik abiatuta euren propio prestatutako distantzia osatzen. Haurren kategoriakoek helduen proban parte hartuko dute, euren kasuan zirkuituari buelta bat emanez (1,5km). Ondoren, helduen proba guztia osatu nahi badute, aurrera jarraitu dezakete.

Kadeteak, jubenilak, seniorrak eta beteranoak 19:00etan udaletxe aurretik abiatuko den proba nagusian ariko dira. Korrikalariak Altsasun barna prestatutako zirkuituari hiru buelta eman behar dizkiote, guztira 4,6 km osatuz. Probako lehen hiru gizon eta emakumezkoek trofeoa jasoko dute, eta lehendabizikoek txapela.

**2015ean 665 korrikalari**

Aurreko urtean 665 korrikalari parte hartu zuten San Silbestrean, 432 proba nagusian eta gainontze-koak txikietan. Altsasuko Sergio Garcia de Eulate (14:58) eta Olatziko Izaskun Beunza (17:23) gailendu ziren. Antolatzaileek aurten ere urtea korrikan despeditzera animatu dute.

**Izena emateko: [www.dantzalekuskakana.com](http://www.dantzalekuskakana.com)**

Izena ematea dohainik da, eta Dantzaleku Sakanak web gunean izena emateko gomendioa egin du. Bestela, egunean bertan izena emateko aukera egongo da, 18:30ak arte.



Altsasuko San Silbestrean aurreko urtean 665 korrikalari aritu ziren.

## Olatz lau kategoriako lasterketa



San Silbestre lasterketaren 15. edizioa jokatu da urteko azken egunean Olatzagutian, 18:00etatik aurrera, Sutegi elkarteak antolatuta. 4 kategoriendako lasterketak antolatu dituzte: txikiak, 7 urtera artekoak (300 m), 8-11 urte bitartekoak (600 m), 12-15 urte artekoak (zirkuituari itzuli bat, 1.240 m) eta helduak. Kasu honetan herri gunean antolatutako zirkuituari 4 bira eman behar die korrikalariak, 5 km osatzeko, 19:00ak aldera abiatuko den lasterketan. Probak frontoia izango du irteera eta helmuga. Proban izena eman nahi duenak lasterketa aurretik irteeran jarritako mahaitik pasa behar du, 17:00etatik aurrera. Giro polita izaten da Olatziko proban, eta bukaeran sariak eta opariak banatuko dira. Katgoria guztietan banatuko dira sariak. Lehen hiru kategorietan, maila bakoitzeko lehen hirurek, emakumeek eta gizonzkoek, trofeoa jasoko dute eta partaide guztiek domina. Eta helduen mailan, txapeldunek erlojua jasoko dute eta bigarrenek eta hirugarrenek oparia. Aurreko urtean helduen proban Egoitz Aldaz eta Miren Lezea nagusitu ziren. Bestalde, Sutegi taldeak aipatu dutenez, 2017 urterako egutegia egin dute. "Gure neska-mutikoak agertzen dira egutegian, eta salgai jarriko dugu San Silbestrean" adierazi dute.

## Iruñean Mercero omenduko dute



77 urteko Joxemari Mercero korrikalari unanurak Sakana-ko probetan parte hartzen du beti, baina San Silbestrean Iruñean aritzen da. "Beste Iruñea taldekoa naiz eta San Silbestre antolatzea tokatzen zaigu. Lehendabiziko antolatu, eta gero korritu" azaldu zigun abenduaren 9an Olatziko Sakanako kirolaririk onenaren saria jaso zuten. Baina proba prestatu eta bertan aritzeaz gain, oholtza gainera igo behar du aurten Mercero, Beste Iruñea klubak taldeko hiru beterano, Demetrio Remon, Santiago Izquierdo eta Joxemari Mercero omenduko dituelako. Klubaren sorreran oso garrantzitsuak izan ziren hirurak eta bere ibilbidea eskertu nahi du klubak.

## Mendia

## Urteari agurra eta ongi etorria, mendian



Horrelako irudiak ikusiko dira aurten ere.

**Mendi tontorrek mendizaleen topaleku egun seinalatuetan**

Urtea mendi tontorrean bukatu eta hasteko ohitura zabala da gurean. Aurretik ditugun egun seinalatu hauetan mendira jotzea, oso hedatua dagoen kontua da, urtea ongi despeditu eta hurrengo urteari ongi etorria emateko. Urtea despeditzeko Aizkorri, Trinitatea eta Aralar dira ohikoena. Eta urteari ongi etorria egiteko, askok Aralarako San Migelera, Beriainera eta beste joko dute.

**Errege Egunean Beriainera**

Errege Egunean Sakanako Mendizaleak Beriain itzotzeko ohitura dute, bertan azkenengo turroiak eta goxoak dastatzeko.

Bestalde, Altsasuko Mendigoizaleek Bargagainera jotzen dute urteko lehen igandean, urteari ongi etorria ematera. Aurten lehengo igandea ilbeltzaren 1a denez, ilbeltzaren 8a atzeratu dute Bargagainera joateko deialdia. Festa giroan, festa ederra ospatuko dute mendi puntan.

## Mendi irteerak

**Trinitatea.** Abenduaren 31n, larunbatean, Irurtzundik, 9:00etan. Irurtzungo Iratxo eta Pikuxarelkaratek antolatuta, txokolatada eta Trinitatera igoera. Aurten 11. edizioa izango da.

**Aizkorri.** Abenduaren 31n, larunbatean. Altsasuko Mendigoizaleek eta Olatziko Sutegi deituta.

**Balankaleku.** Abenduaren 31n, larunbatean, Ataboko langatik, 8:30ean, Dantzaleku Sakanako mendi atalak deituta.

**Lakuntzaskoarri.** abenduaren 31n, larunbatean, VII. Lakuntza-Eskuarri igoera egingen da. Irteera goizeko 8:00etan, plazatik. Hamaitetako egingen dute. Zabalarte mendi elkarte.

**Beriain.** Ilbeltzaren 6an, ostiralarekin, 9:00etan Unanutik. Sakana Mendizaleak taldeak antolatuta, Errege Egunean urtero egin ohi duten bezala.

**Bargagain.** Ilbeltzaren 8an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleek antolatuta. Urteko lehen igandean -aurten 8a atzeratu dute, lehen igandea ilbeltzaren 1a delako- Bargagainera jotzen dute altsasuarrek, 8:00etan aterata. Goian hamaitetako eta festatxoak.

## Txirrindularitza



## Bizikletan urteari agurra

**Sociedad Deportiva Alsasuak antolatuta, 2016ko San Silbestrea 34. Urbasa Igoera izanen da abenduaren 31n. Aurten eguerdira aurreratu dute hitzordua, 12:00etan**

Sociedad Deportiva Alsasuak Altsasuko Udalaren laguntzarekin eta hainbat komertzioaren babesarekin antolatutako San Silbestre bizikleta marxiak 34. edizioa hartuko du aurten. Orain arte proba arratsaldeko 15:30ean hasten zen, baina aurten 12:00etara aurreratu dute.

Hortaz, 12:00etan abiatuko dira zikloturistak. Gehienek asma ongi pasatzea da, baina badago lehiatza doanik ere. Altsasutik

abiatuta, Urbasara igotzea da erronka. Igo ondoren salda beroa hartzeko aukera izango da, gorpuzta berotzeko. Proba despeditu eta gero, txirrindulariek Sociedad Deportivako tabernan kamiseta bat jasoko dute, dortsala bueltatzeko. Bertan egingen da sari banaketa. Aurreko urtean 82 txirrindulari aritu ziren eta Sergio Garcia izan zen azkarrena.

**Izena ematea**

Proba hasi baino 45 minutu lehenago, Sociedad Deportiva Alsasuak elkarte egoitza.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 197 070**

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



**Esperanza  
Mazkieran  
Martinez de Gereñu**

Gu sortu ginen  
enbor beretik  
sortuko dira besteak.  
Agur, izeba!

**Zure ilobak**



Eskertzak eta eskelak  
osteguneko goizeko  
11:00ak arte jasotzen  
ditugu.

**Bidali mezua**  
[eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)  
era edo hots egin 948  
564 275 telefonora



**Sabino Leiza Reparaz**

Gure ondoan egon zaretenoi eta zuen gertutasuna  
adierazi diguzuen guztioi, eskerrak eman nahi dizkizuegu,  
bihotz-bihotzez.

**Familia**



**Sabino Leiza Reparaz**

Beti gure bihotzean  
eramanen zaitugu.

**Zure ilobak**

Bakaikun, 2016ko abenduaren 21ean



**guaixe.iragarkilaburrak.com**

**1 HIGIEZINAK**

**2 TEKNOLOGIA**

**3 LANA/NEGOZIOAK**

**4 DENETARIK**

**5 IBILGAILUAK**

**6 HARREMANAK**

**7 AISIA/KIROLA**

**8 FAMILIA/ETXEA**

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**

**Astekarian:** Saldu/erosi, errentan eman/hartu, trukeak 8€ 3 aste

**JAIOTZAK**

• **Bikendi Esteban Goñi**  
abenduaren 3an Uharte  
Arakilen.

**EZKONTZAK**

• **Patxi Ondarra Ondarra**  
eta **Patricia Lopez de**  
**Zubiria Larraga,**  
abenduaren 16an Bakaikun.

**HERIOTZAK**

• **Milagros Mozo Mozo**  
abenduaren 8an Unanun  
• **Blas Ruiz Molina**  
abenduaren 14an Etxarri  
Aranatzen  
• **Pedro Urrestarazu Urdiain**  
abenduaren 17an Bakaikun  
• **Esperanza Mazkieran**  
**Martinez de Gereñu**  
abenduaren 19an Olaztin  
• **Sabino Leiza Reparaz**  
abenduaren 21ean,  
Bakaikun

Informazio hau epaitegietan eta  
udaletan jasotzen da.  
Agertu nahi ez duenak, han  
jakinarazi dezala.

**LEHIAKETAK**

**Mikro-ipu in lehiaketa.** Lehen  
Hezkuntza eta DBHko ikasleei zuzendu-  
ta. Ipuinek gehienez 100 hitz izan behar  
dituzte. Lanak abenduaren 31ra arte aur-  
keztu daitezke e-posta honen bidez:  
[mikroipuinak@euskokultur.eus](mailto:mikroipuinak@euskokultur.eus). Eusko  
Kultur Fundazioa eta Pamiela.

**OHARRAK**

**Etxarri Aranazko irakurle taldea.**  
Hurrengo hitzordua: ilbeltzaren 26an,  
ostegunean, 19:00etan libururtegi.  
Jexumari Zalakain Garaikoetxearen  
"Kartzelako kronikak" liburuaz ariko dira.

**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako  
erresumakoa izan zen Baigorriko  
Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erres-

kuratu nahi da. Nafararren eta euskal-  
dun guztien etxea izan dadin. Gure kultu-  
ra, ekonomia, historia eta mugaz gaindi-  
ko harremanak antzinarazteko gunea  
bizia. Informazioa [www.euskaldunbateu-robot.com](http://www.euskaldunbateu-robot.com)

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren  
alde.** Diru ekarpenak kontu korronte  
hauetan egin daitezke: Laboral kutxa  
3035 0069 52 0690024878, Rural  
kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta  
Caixa 2100 2173 87 0200346965

**Volkswageneko langileendako  
deia.** Iruñeko lantegiak zure elkartasun  
proiektua deialdia bigarren urtez aurkez-  
tu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau  
zango milaka irri" programa aurkeztu du  
laguntza deialdi horretara. Proiektua aur-

keztu duten Sakanako elkarte bakarra  
dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langi-  
leei 24 proiektuaren aldeko botoa emate-  
ra animatu dituzte.

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.**

Garun paralisia duen neska olaztiarra  
atzerrian operatzeko diru-bilketan ekar-  
pena egin nahi duenak kontu korronte  
honetan sartu dezake dirua: ES33 2100  
5365 2301 0002 9770.

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako  
lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea,  
Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta  
hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik  
19:00etara etor zaitezke informazioa  
jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak  
egitera...

**Autoenplegurako laguntza.** Zure  
lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-  
Garalurrek honako laguntza eskaintzen  
du: ideia aztertzea, proiektua garatzea,  
enpresa sortzea edota martxan dagoen  
jarduera sondotzea. Argibide gehiago:  
948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo  
[sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko  
denon laguntza behar dugu, lagundu  
zabaltzen eta finantzatzeko:  
<http://goteo.org/project/zu-gabe-egin>

**Euskonews ekonomikoki lagun-  
tzeko kanpaina.** Informazio gehiago:  
[www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)/laguntza, eusko-  
news@euskonews.com, 943 32 22 94

**Auzolana Josefina Arregui klini-**

**kan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56  
38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi)  
telefonoetara hots egin dezatela

**Josefina Arregui klinikako bazki-  
dea izan** nahi baduzu, urtean 12 € edo  
nahi duzun kopurua eman dezakezu.  
Informazio gehiago [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com)

**Enplegarritasuna hobetzeko biter-  
karitza eta aholkularitza  
zerbitzua.** Sakanako Enpresarien  
Elkarteak langabeei eta lan bila dabilta-  
nendako duen aholkularitza zerbitzua da.  
Harremanetarako: 948 468 307

**OLENTZERO, MODELO:** Ziordiko liburutegiak antolatutako Olentzero marrazki lehiaketako opariak gaur banatuko dituzte, 19:00etan. Bestalde, Altsasuko liburutegian ikazkinaren irudi ugari ikusgai daude.

# kultura >>

## Badugu sakandar bat Nafarroako Bertsolari Txapelketan

**Saats Karasatorrek kanporaketako saioa irabazita lortu du 2017ko txapelketarako txartela**

Nafarroako Bertsolari Txapelketan aurrenekoz izena eman zuten zortzi bertsolarien artean kanporaketa jokatu zen Iruñean ostira-lean. Txapelketan parte hartzeko lau txartel zeuden jokoan. 140 bertsotzalek bete zuten Iruñeko Katakrak aretoa. Saioko bost ariketak egin ondoren epaileek Saats Karasatorre kanporaketako irabazle izendatu zuten.

Bertsolari etxarriarra final-laurdenetarako sailkatu da. Eta ez da sakandar bakarra izanen.

Aurreko txapelketan Josema Leitza, Eneko Lazkoz, Joseba Beltza eta Oier Lakuntza aritu ziren. Laurek izena ematen badute sekula baino bertsolari sakandar gehiago egonen dira lehiaketan, bost. 43. Nafarroako Bertsolari Txapelketan 35 bertsolarik parte hartuko dute. Final-laurdenetako fasea otsailaren 18an hasiko da eta txapelketa apirilaren 8an despidituko da.



## Senide trikitilariak Nafarroako jaialdian

**Ilbeltzaren 7an, larunbatean, 17:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean**

Nafarroako Trikitixa Elkarteak herrialdean trikitiaren inguruan erreferentziatzeko eguna bihurtzeko asmoz hasi zen Altsasun jaialdiak antolatzen. Hirugarrenaren atarian elkarteko Patxi Agirre arbizuarrak esan digunez, "horretan gabiltza eta uste dugu, baietz". Agirrek esan digunez, aurtengo jaialdiko berezitasuna da parte-hartzaile guztiak, baita aurkezleak ere, senideak direla: "familia-ko bikote edo hirukoteak dira".

Horrek zerbait utzia dutenak bildu eta zerbait berezia presta-



tzeko aukera ematen duela azaldu digu Agirrek. Zazpi bikote edo hirukote pasako dira oholtzatik, bakoitza bere estiloarekin. "Hor dago kokka eta grazia. Bakoitzak bere estiloa du eta bere musika motak". Gainera, antola-

tzaleek parte-hartzaileei jaialdirako zerbait berezia prestatzeko eskatu diete. Horren jakitun, apiriletik ari dira saioa prestatzen. Guztiek hiruna pieza joko dute. Saioa Telleria anaiek aurkeztuko dute.

### Parte-hartzaileak

Narbarte anai-arrebak  
Laja aita-semeak eta Aritz  
Etxabe anaiak  
Lasa ahizpak  
Elustondo anai-arrebak  
Alkorta anai-arrebak eta Enaitz (semea)  
Etxaniz anaiak

### Sarrera eta afaria

Dagoeneko 12 eurotan eskuratu daitezke kultur gunean edo [www.iortiakultura.com](http://www.iortiakultura.com) web orriaren bidez. Ondoren izanen den afarira joan nahi duenak 20 euro pagatu behar-ko ditu

## Haize Berriak bandaren partitura berria

Gorka Hermosa akordeoilariaren *Flamenco Etxea* proiektuaren bertsio sinfonikoa mustu zen Altsasun larunbatean. Euskal musika eta flamenkoa uztartzen ditu Herminosaren proiektuak eta haren moldaketa Alberto Gonzalezek egin du. Herminosaren lanetatik egokien orkestratu zitezkeen lanak aukeratu zituen. Haien artean daude Imanol Lartzabalen *Kopla*

*berriak* eta *Lau haizetara*, edo Herminosak sortutako Paco de Luciar eskainitako *Paco*, Enrike Zelaiari eskainitako *Zelaia*, *Fiesta-jai* eta *Agua-ura*.


Partiturak jendaurrean estreinakoz Herminosak berak, Jose Luis Monton gitarrak-joleak, Haize Berriak bandak eta Erku-dengo Ama abesbatzak eman zituzten. Enrike Zelaiak bere



omenezko piezan soinu txikiarekin ere aritu zen. Emanaldi guztian ferietako auzipetuak presente izan zituzten. Bi emanaldi

izan ziren eta harrera beroa izan zuen ikuskizunak. Ondoren, musikari guztiak elkarrekin afaldu zuten.

## Anda, zazpi euskal eskultoretako bat



Donostiako Gros auzoko Okendu kultur etxean 7 *euskal eskultoretak* erakusketa ikusgai dago ostiralaz geroztik eta ilbeltzaren 28ra arte. Zazpi eskultoreen artean Jose Ramon Anda bakaikuarra dago,

besteak Ricardo Ugarte, Jose Zugasti, Iñaki Ruiz de Egiño, Iñigo Arregi, Iñaki Olazabal eta Kolobika Jauregi dira. Joan den mendeko 50eko hamarkadako Gaur taldearen ondoren etorri zen eskultore belaunaldi berriko kideak dira denak. Zazpiek osatutako lanak Arantzazun erakutsi zituzten *Amets-kabi* izenburupean, 2014ko udazkenean. Erakusketa arrakastatsua izan zen.

+[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



• Kartel erraldoiak  
• Argazkiak  
• Inprimaketak (koloretan)

**Txartel**

Inprenta digitala eta papergintza

Bake Kalea, 2 - 31800 Altsasu (Nafarroa)  
Tlf. 948 564 002 | E-mail: [txartel@txartel.net](mailto:txartel@txartel.net)

# Non erabili

### IORTIA HORTZ KLINIKA

**ALTSASU**

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

### JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

**ALTSASU**

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

### JON CORDON TAXIA

**IRURTZUN**

%10eko deskontua.

### JAVIER AIZPUN HARATEGIA

**UHARTE ARAKIL**

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

### UHARTE GAZTA

**UHARTE ARAKIL**

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

### BERGARA CENTRO OPTICO

**AGURAIN**

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

### JUGA TAILERRAK

**ARBIZU**

%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

### ENERITZ ILEPAINDEGIA

**ETXARRI ARANATZ**

%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

### EKIN

**ALTSASU**

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)-en zerranda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**

## Hatortxurock Lakuntzara bueltan



**Garilaren 27tik 30era izanen da musika jaialdi handia. Sarrerak dagoeneko 35 eurotan salgai daude**

Atarrabiak XIX. Hatortxu Rock musika jaialdia hartu zuen larunbatean. Nafarroan elkartasunerako eta dispersioaren aurkako musika jaialdia da Hatortxu Rock. Asteburuan Atarrabiak 19. edizioa

hartu zuen. Eta antolatzaileek han iragarri zuten 20. edizioa Lakuntzan izanen dela, udan. 2009an bezala. Orduan jaialdiko antolatzaileek 10. edizioa "festa handiago" batekin ospatu nahi izan zuten: bost gune eta hiru egunetan ia 70 talderen kontzertuak. Hatortxu Rock-en 20. edizioak, berriz, lau egun iraunen du, ostegunetik igan-

### Informazio batzarra

Rock jaialdi handiaren inguruko informazioa emateko Lakuntzako Udalak batzarra deitu du ostiralerako, udaletxean, 19:00etan.

dera, garileko azken astean. *Txori askeen unea heldu da* leloa izanen du.

Antolatzaileek esan dutenez, "2009ko emaitza ona ikusita, herriaren erantzunarekin eskertuta eta egin genituen akatsetatik ikasita, zerbait benetan berezia eskaintzeko asmoa dugu". Aukeratutako leloaren inguruan, berriz, adierazi zuten "gatazka hau errotik hartu eta konponbide bat bilatzeko garaia da". Azkenik, "denen artean Lakuntzan Hatortxu Rock berezi bat antolatzeko" deia egin zuten.

## Arakilgo argazki lehiaketan onenak aukeratzeko garaia

**Abenduaren 30era arte eman daitezke botoa bi mailetan**

Arakilgo Udako Kultura Batzordeak hirugarren aldiz argazki lehiaketa antolatu du. Bi maila ditu lehiaketak. Festa eta ohiturei dagokion atalean lau argazki aurkeztu dira lehiaketara. Ondarea eta paisaiak atalera, berriz, 29. Argazki guztiak Arakilgo udaletxean daude ikusgai, edo [www.arakil.net](http://www.arakil.net)



web orrian. Bai udaletxean bai Interneten lehiaketara aurkeztu-

tako argazkien aldeko botoa eman daitezke. Pertsona bakoitzak maila bakoitzean boto bakarra eman dezake. Sare bidezko bozketa egiteko gmail posta zerbitzuaren e-posta helbide bat izatea ezinbestekoa dela gaztigitatu du udalak.

### erakusketak >

**Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Arakilgo udaletxean hilaren 30era arte daude ikusgai, astegunetan, 10:00etatik 15:00etara.**

## Jostailu zaharren dendan dantzari



**Abenduaren 28an, asteazkenean, 18:30ean Irurtzungo kultur etxean**

Errusiako Uralen eskualdeko Ekaterinburgo hiritik heldu da Irurtzunerako *Destvo* dantza taldea. 20 dantzari gaztetxok osatutako tal-

dea da. Dantza modernoa eta klasikoa uztartzen dituen *Erloju magikoa* ikuskizuna eskainiko dute. Eguberri garaian, urtezahar egunetan hain zuzen ere, kokatzen da ikuskizuna, jostailu zaharren denda batean. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Uribe, bigarrenez bigarren Itaroan

Eguberri bola erraldoiak dekoratzeko lehiaketaren zortzigarren edizioa antolatu du Iruñerriko Itaro merkataritzaguneak. Aurkeztutako 50 proiektuen artean 10 aukeratu eta euren egileek 140 cm-ko diametroa duten bola erraldoietan irudikatu zituzten zirriborroak. Haien artean zegoen Iker Uribe-Etxeberriaren *Quando los juguetes sueñan*. Duela bi urte bezala, ilustratzaile lakuntzarra bigarren postuan sailkatu da, oraingoan Zuriñe Coronado Mon-

toiaren atzetik. Bola dekoratu horiek eguberri merkatalgunean ikusgai izanen dira.



## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Murakami, Kenzaburo Oe eta Mishimaz gain, Rampo, Kirino eta gehiago

Japoniako literaturak badu mundu osoan ezagunak diren idazletal-detxo bat. Murakami, Kenzaburo Oe edo Mishima izen ezagunak dira literatura gustoko duten irakurleendako. Baina, bospasei idazle ezagunenak alde batera utzita, Japoniako literatura ez ezagunak dagoenentzat.

Elaberrri beltzen munduan goiz murgiltzen hasi zen Japonia, Edogawa Rampo idazlearen eskutik. 1894. urtean jaioa, izen artistikoa bereganatu zuen "Edgar Allan Poe" idazlearen izena Japoniarako fonetikara moldatzean. Benetazko izena Hirai Tarou zuen idazleak, eta idazle izateaz gain, beste lanbide asko izan zituen aurrera egiteko.

Lehen idatziak astekarrietan idazten zituen, eta berehala lortu zuen arrakasta. Jendeak Ramporen elaberrriak oso gustoko zituen. Kogoro Akechi detektibeak dugu bere pertsonai famatuenetarikoa, gaur egun ere jendeak ezagutzen duen gizona, bere burua mozorratzen duen ikertzailea misterioak argitzeko. Bestalde, eta egile modernoagotara bidea eginez, Natsuo Kirino (benetazko izena Mariko Hashio-ka) idazlearen lana azpimarratu nahiko nuke. Rampo generoaren aita badugu, Kirinok liburu hunkigarriak idatzi ditu genero beltzaren inguruan. Rampo meritoa badu zaletasuna bideratu zuelako, baina lan asko sinesgaitzak eta fantasiaz beteak direla ere esan dezakegu. Kirinok, ordea, bere garaia ondoulertuz, kritika latzak egiten dizkio egoera sozio ekonomikoari, jendea noraino iritsi daitekeen imajinatuz. Gure herrialdean oso ezaguna izan

da Kirinoren "Out" elaberrria, non pertsonaia ezberdinak aurkezten zaizkigu japoniko gizartearen laginketa bezala. Japoniar jatorriko etorkin brasildar bat, hipoteka eta kredituak itota dabilen emakume xahutzailea, besteen xoxak bereganatzen aberastu nahi duen iruzurgilea, bizian aurrera egiteko lanera itzuli behar duen alargun heldua, eta gure protagonista: erdi mailako emakume normala, gauzez lan-tegi batean lanean diharduena eta senar erasotzaile batekin bizi dena. Emakumea dugu protagonista elaberrian, eta honek, Japoniako gizartearen ikuspuntu ezberdina eskaintzen digu, emakume idazle baten eskutik.

Nolabait, eta elaberrri beltza dela ahaztu gabe, kostumbrista ere denez, oso erraz murgiltzen zara elaberrian. 90. hamarkadako japoniar krisi ekonomikoaren azalpena agertzen zaigu (gurearen berdina baina 20 urte lehenago). Egu-



neroko bizimodu xume eta ohikoa deskribatuko zaigu, guretzat batzutan guztiak arraroak izango diren arren. Azkenik, azpimarragarria ere Japoniatik Brasilera joandako emigranteen semeen bueltatzea eta hauekiko arrazakeriaren arazoaren kontua, niretzat ez ezaguna eta

sekulako sorpresa izan dena. Oso liburu erakargarria eta Japoniako kultura ezagutu nahi dutenendako goxoki gozo eta mingotsa aldi berean. Beraien kulturaren desmitifikazioa elaberrri beltz eta hunkigarri baten barruan murgilduta.

# Gaur mustuko da zinematan bi sakandarrek parte hartu duten animazio filma

Jose Mari Morcillok eta Urko Mauduitek Pixi Post eta opari-emaileak filman lan egin dute

Eguberri giroko euskal animazio film bat mustuko da zinematan gaur: Pixi Post eta opari-emaileak. 4 eta 9 urte bitarteko hurrei zuzendutako da, haiek baitira eguberrien mundu magiko horretan sinisten dutenak. Munduan barna urtero opariak banatzen dituzten Olentzero, Errege Magoak, Bizartzuri, Befana, Ded Moroz, Snegurotxka eta beste hainbat jeinu agertzen dira filmean, elkarlanean. Hainbat kultura elkarbizitzan eta bata besteari laguntza ematen ikusiko dira filmean, modu koloretsu eta irudimentsuan. Azken batean dibertitateari kantatu bat baita.

Animazio filmeko protagonista Pixi Post da, neska elfo bat. Duela mende asko, Eguberrietako Jainuen Biltzarrak Monopolish ize-

neko jeinu gaiztoa kaleratu zuen, eta orain, urte luzeetan prestatu duen mendekuekin itzuliko da. Bere plana jeinu guztiak eguberri iragarki bihurtzea izanen da, horrela bera bakarrik litzateke opariak eginen lituzkeena. Baina horri aurre egiteko, Jainuen Biltzarrak Pixi Post izanen du, Eguberrien Zaindaria.

## Egileak

Somuga ekoiztetxearen lana da gaur mustuko dena. Gorka Sesmak zuzendu du filma eta bere lantaldean bi sakandar izan ditu: Jose Mari Morcillo altsasuarra eta Urko Mauduit irurtzundarra. Morcillok filmean agertzen diren pertsonaia guztien diseinua egin du. Ia 300 bat pertsonaia sortu eta adierazkortasuna eman die. Altsasuarrak aitortu digunez, hainbeste pertsonaia sortzeko azkenean gertuko en artean bilatu du inspirazioa eta haien

hainbat karrikatura agertzen omen dira filmean. Halakolanetan eskarmentua du Morcillok Somuga ekoiztetxearen lan guztietan parte hartu baitu (Munduari buelta doan, Gartxot, Yoko eta lagunak...)

Altsasuarrak egindako marrazkiak 3 dimentsioetara bihurtu eta haiei mugimendua ematea izan da hurrengo pausoa. Teknologia horrek garai bateko argazkilaritzaren errebelatu prozesu moduko bat behar du, randerizazioa. Eta horretan aritu zen Mauduit. Irurtzundarra



darra bukaeran sartu zen lanera eta martxan zegoen lantalde batean egokitu behar izan zuen. Ekoiztetxe txikia denez plano bat nola egin zehazten zuten. Horretarako 12 ordenagailu egun osoz lanean jartzen zituen irurtzundarrak handik ateratakoa kanpoko beste ekoiz-

tetxe batean lantzen zuten eta beste hainbat plano lortzen zituzten horrela. Bere profesionaltasunera-ko salto txikia izan dela aitortu digu Mauduitek, nahiz eta aurretik Somugan 3 hilabetez Yoko eta lagunak serieko marrazkiei hezurak jartzen aritu.

## Enrike Zelaia Vianako Printzea Sarirako hautagai proposatzeko sinadura bilketa



Haize Berriak bandak sustatu du sinadura bilketa. Sakanako musika bandak akordeoilari altsasuarra 2017ko Viana Printzea Sarirako hautagai izatea nahi du, "bere praktika ereduak eta bere obra emankorrek gure lurraren historian merezitako tokia izan dezaten". Enrike Zelaiak bere musikari ibilbidean jasotako saries aparta instrumentista, moldatzaile, konpositore, folklorista, ikerle eta historialari gisa egindako lanak nabarmendu ditu. "Hori guztia hainbat sentsibilitate dinamizatuz eta batuz, herritarrak bere nortasunaren erroez jabetuz eta parte hartuz. Horretarako, kultura inmaterialeko ondarearen mantentzea, aberastea eta zabalkundearako komunikazio estrategia berri-tzaileak erabili ditu".

## Bilketa

Sinadurak Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari emanen dizkio Haize Berriak bandak. Sinadurak [www.change.org/plataformarenbitartezegitenari](http://www.change.org/plataformarenbitartezegitenari) dira.

## Lakuntza Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdietako baten egoitza

Haur eta gaztetxoaren artean euskarazko kantuzaletasuna sustatzeko asmoz antolatzen dira urtero Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdiak. Kantuzaleen Elkar-teak utzi zionetik Amaia Dominguez Gonzalo Tafallako ikastolako irakaslea ari da haiek antolatzen. Dominguezek dagoeneko 2017ko lau datak zehaztu ditu. Haur eta gaztetxo kantari nafarren aurreneko jaialdia martxoaren 18an Zangozan izanen da. Hurrengo egunean, martxoaren 19an, igandean, Lakuntzako kultur etxean. Martxoaren 25ean Lesakan izanen da eta apirilaren 1ean Orkoien. Apirila akabera aldera jaialdi nagusia litzateke, Tafallako kultur gunean.



## Izena emateko

[amadominguez@tafallaikastola.org](mailto:amadominguez@tafallaikastola.org) e-posta helbidera idatzi daiteke. Honako informazioa eman behar da: izen-abizenak, herria, abestuko d(ir)en kanta(k), a capella edo karaoke moduan kantatuko den, musikari laguntzaileak izanen diren, partaide eta laguntzaile guztien adinak...

# ZAMA DOINUZ ARINDU II

Dispertsioaren errealitatearen kontakizuna musikari ezagunez lagundua

## ELKARTASUN JAIALDIA

### Urtarrilak 15 IGANDEA

Etxarri Aranazko Kultur Etxean  
Bi emanaldi 18:00-20:00

**SARRERA: 12€**

ALDEZ AURRETIK EROSTEKO:

- Etxarri Aranazko udaletxeko kultura bulegoan (asteleheneretik ostiralera 09.00-13.00)
- On-line: [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web gunean
- Etxarri Aranazko Xapatero eta Leku Ona tabernetan

Antolatzaileak: Etxarriko SARE eta Etxarriko Senide eta Lagunak

Laguntzaileak: SARE, Etxarri Aranazko Udala, naiz:

## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: % 10	euria: % 15	euria: % 5	euria: % 10	euria: % 5	euria: % 10	euria: % 15	euria: % 15
Min: 6 Max: 10	Min: 5 Max: 12	Min: 5 Max: 12	Min: 5 Max: 12	Min: 4 Max: 11	Min: 4 Max: 12	Min: 4 Max: 11	Min: 4 Max: 11

## : temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	13	-1.5	3.2
Etxarri A.	12.3	-2.9	3.7
Altsasu	11	-2.5	12.1
Aralar	8	-1.2	7.5
Urbasa	10	0	3.5

## : ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
29	4	12	19

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide zozketa

URTARRILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

Ekain berri

CAMPING ARTAZA

gaztezulo

GUAIXE

fundazioa

# >> 11 galdera

Unai Martinez Sebastian

Uharte Arakilgo ondare taldeko kidea

Testua: Alfredo Alvaro Igoa



- 1. Zer ikusi daiteke zuek argitaratutako egutegian?**  
Uharteko natura- eta material-ondarea bildu nahi izan dugu.
- 2. Eta argazkiak zeinek egin ditu?**  
Uhartearrek. Argitaratu aurretik argazki lehiaketa antolatu genuen. Jendeak argazkiak aurkezteko aukera izan zuen. Lehen urtea zen eta gutxi parte hartuko zutenaren beldurra genuen. Baina ongi ateratu da. 70 bat argazki aurkeztu ziren. Epaimahai batek baliagarriak aukeratu zituen irizpide hauekin: nahita ez Uharteko ondarea izan behar zuen eta, ahalik eta gehien zabaltzeko, egileak ez errepikatzea nahi genuen.
- 3. Zein izan zen saritua?**  
Saria Javier Restitutok irabazi zuen zubiaren argazki batekin. Egutegian argazkien izenburua eta egilea zein den aipatzen da.
- 4. Dagoeneko kalean?**  
Duela bi aste kaleratu genuen. Aldi berean, taberna guztietan jarritako erakusketa mustu genuen. Bi astez jarrita egon da eta arrakasta handia izan du. Orain, ilbeltzaren 8ra arte Aralar Mendi elkartean dago ikusgai. Jendeak egutegia oso ondo hartu du ere. Oso harrera ona izan du. Pozik gaude. Uharteko ia taberna eta denda guztietan daukagu salgai.
- 5. Nolaz animatu zarete estreinakoz egutegia egitera?**  
Betikoa. Diru apur bat biltzeko beharra izan genuen. Ideia hausortu zen. Egokia iruditu zitzaigun, aukera ematen zuelako diru apur bat biltzeko eta, aldi berean, onda-

- rea ezagutarazi eta jendearengana hurbiltzeko balio duelako.
- 6. Herria gai hartutako egutegirik egin da aurretik Uhartean?**  
Duela bi eta hiru urte jubilatu elkarrekin Uharteko argazkiekin egutegiak argitaratu zituzten. Antzeko zerbait egin zen, baina erakusketarena eta, ez. Beste gauza garrantzitsua da taldeak egin duen lan bat: atzeko aldean argazkien azalpentxi-ki bat jartzearena. Egutegian zein argazki argitaratuko ziren ez gurekin eta jakin genuenean oso azkar egin behar izan genuen. Ikerketa egin behar izan dugu.
  - 7. Ondarearekiko kezka nondik?**  
Denetarako jendea gaude eta herriko ondarearekin interesa dugun batzuk bildugara. Duela bi urte hasi ginen biltzen, bordak mantentzeko. Bizpahiru borda daude eta nahiko egoera txarrean zeuden. Zaintze aldera, biltzen hasi ginen. Larrak eta dena garbitu genuen. Teila berriak jarri, zuloak estali, dena txukundu. Hori gure hasiera izan zen. Ildo horretan segitzea da gure asmoa, ez bakarrik bordekin, baizik eta trikuharriak, asko estaliak daudelako. Mendiko lan batzuetan eskabadora batek trikuharri bat hondatu zuen. Gauzahoriek saihesteko taldea sortzea pentsatu genuen, babesten saiatzeko.
  - 8. Uharteko ondarea nola definitzen duzue?**  
Herriak duen ondarea ez da txikia! Pentsa, historiaurretik dator. Barruan trikuharriak, zutarriak, kobazuloak eta halako gauzak gaur egunera arte: zubitxoak, iturriak, etxeak... Dena biltzen saiatu behar dugu.

- 9. Zenbat zarete?**  
Sei bat antolakuntzan. Gero, mendian gauzak egin behar ditugunean, jendearen laguntza dugu. Ideia da gure taldean zer egin daitekeen pentsatzea eta gero auzolanean egin. Nahi duenak etortzea du.
- 10. Egutegia bai, baina heldu den urterako planik?**  
Egutegia eginen dugu, ez dakigu gai honekin edo gaia aldatuta. Arrakastatsua izan da. Bestela, Uharteko ondare guztia katalogo batean biltzeko helburua dugu. Behintzat, jakiteko zer non, zein egoeretan dagoen ikusi eta zer daukagun jabetzeko. Katalogatu eta gero guk zer egin dezakegun, ikusi dugu.
- 11. Lehen tasunak markatu eta lehenik non eragin?**  
Hori da. Lehen esan bezala, bordekin hasi ginen erortzeko arriskua zutelako. Hori ahalik eta azkarren konpontzeko zen. Nik uste dut trikuharriekin segida emanen diogula, nahiko egoera txarrean daudelako batzuk. Sasiak garbitu, eta ahal bada, Vianako Printzea erakundeak uzten badigu, hesitu eta ongi markatu jendea autoekin eta nola nahi ez pasatzeko.

Gauza bat da guk eginen genukeena eta beste bat da egin dezakeguna. Baimenak, laguntzak eta dirua, gauza batzuk garestiak direlako. Horregatik, katalogoa egitearena. Behintzat jakin non dagoen eta zer arazo duen, gero errazagoa da udalari jakinaraztea egoera txarrean zer dagoen eta babestu beharra dagoela.

**Elkarrizketa osorik:**  
[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)